
DONOSTIAKO UDALEKO GAZTERIA SAILAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

2017ko EKINTZAK




**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**

01 AURKEZPENA

-

1.1. GAZTERIA SAILAREN MISIOA, BISIOA ETA BALIOAK

1.2. 2017-2020 LEGEALDIRAKO ERRONKAK ETA HELBURUAK



02 2017 URTEAN GARATUKO DIREN EKINTZAK


-



03 2017KO AURREKONTUA

-





01

AURKEZPENA

-

Gazteria Sailaren plan honen abiapuntua “Donostiako haur, nerabe eta gazteen egoeraren diagnosis, 2014” ikerketan kokatu behar dugu eta 2015 eta 2016 urteetan garatutako Gazteria Sailaren berregokitzapen eta berregituratze beharraren inguruko gogoetan.

Plan honen diseinuarekin, ikerketan eta ondorengo hausnarketa prozesuan agertutako ondorio nagusiei leku egiten saiatuko gara.

Bi beharrei erantzungo zaie: alde batetik, Donostiako haur, nerabe eta gazteen egoerari hobekien egokituko den programa eta zerbitzuen eskaintza diseinatzea; eta, bestalde, egokitzapen hori emateko nolako egitura eta berregokitzapena eman behar den etxe barruan, hau da, sailaren beraren egituraketa.

Bi plano horietan mugitu da planaren diseinuaren prozesua, bien arteko oreka eta uztarketa bat izan da; alegia, *ZER egin nahi dugun eta NOLA egin nahi dugun* konbinatu dugu etengabe.

Egungo testuinguruan eragiten duten faktore kultural, sozial eta politikoek -krisialdi orokor baten testuinguruak gurutzatuta- Donostiako haur, nerabe eta gazteen beharrak etengabe eta modu iraunkor batean egokitzera behartzen gaituzte. **Behar eta bizi eredu berri horietara egokitzeko gaitasuna** duen udal egitura beharrezko ikusten da.

Bide hori, **gertutasuneko egitura** eta profesionalekin egitea adierazten da behar argi moduan, haur, nerabe eta gazteek dituzten zailtasunak konpondu baino presente dagoen egitura bat eskatzen da. Gertutasuna eta presentzia zuzena aipatzen da.

Autonomia garatzeko bitartekoak eskaintzea izan da ondorioztatutako behar orokor bat; hain justu, haur, nerabe eta gazteei, bakoitzaren bizitza ziklo eta errealtatera egokituta, beren beharrak asetzeko bide eta bitartekoekin laguntzea. Beraz, udal egitura orokorrean, eta Gazteria Saila zehazki, Donostiako 0-30 urte bitartekoei autonomia eta bizitza plenoa garatzeko bidelagun eta laguntzaile gisa irudikatzen dira.

Gazteria Sailak dituen erronkak handiak dira, aldaketa, modernizazio eta egokitzapena eskatzen dutelako.

Sailak eskaintzen duenaren hobekuntza beharra eta jendartean ematen diren egoera aldakorrei egokitzapen iraunkorrak epe luzeko ikuspegi bat eskatzen du. Helburu hau lortzera bideratutako politikak ziklo politikoetatik haratagoko ikuspegia behar dute, izan ere, emaitza esanguratsuak izateko denboran iraunkorrak izango diren erronkei eutsita egingo dugu lan Gazteria Sailetik.

Edonola ere, epe luzeko ikuspegiak testuinguru eta denbora jakin batean garatuko dira, eta hori 2017-2020 epea izango da. Eta erronka orokorren gauzatzea, urtez urtekako inplementazio planekin garatuko da.



01-1 GAZTERIA SAILAREN MISIOA, BISIOA ETA BALIOAK -



Beraz, Gazteria Sailaren Misioa, Bisioa eta balioak hauek dira:

MISIOA

Donostiako haur, nerabe eta gazteen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dugun udal zerbitzu publikoa gara.

Haur, nerabe eta gazteen eskubideak aintzat hartu eta errespetatuz euren bizitza ziklo propioa errekonozitu eta garatzen laguntzen dugu, baita bizitza zikloen trantsiziorako baliabideak eskaini ere.

BISIOA

Donostiako haur, nerabe eta gazteentzako zein beraiekin lan egiten duten eragile anitzentzako tresna erabilgarri eta erreferentea izan nahi dugu, eguneroko bizitzarako baliabide baliagarriak eskaintzeko gaitasuna duena.

Haur, nerabe eta gazteei laguntza eta aholkularitza bermatzeko gure arloaren egitura sendotu eta ikusgarritasuna bilatzen dugu.

Bizitza zikloak dinamikoak direla kontziente izanda, errealitatera gerturatzeko gaitasuna duen zerbitzua gara, haur, gazte eta nerabeen ohitura eta beharretara etengabe egokitu nahi dugunak.

Pertsona hauen ikusgarritasun soziala eta irudi positiboaren alde lan eginda garatu nahi dugu gure jarduna.

Gure lana modu transbertsanean garatuko dugu protagonista eta eragile desberdinekin, modu honetan gure lana errealitatera egokituz.

BALIOAK

Gure lan jardun profesionala modu honetan garatzen dugu:

- **Gertutasunez.** Lan egingo dugun pertsonekin gertuko harremana bermatuko dugu, irekitasun eta konfiantza eskainita.
- **Kontzienteak.** Gure inguruan gertatzen dena ezagutu eta ikasteko borondatearekin egiten dugu lan, haur, nerabe eta gazteen errealitatearekin konektatuak egon gaitzen.
- **Profesionaltasunez.** Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko haur, nerabe eta gazteekiko arduraz jokatzeko dugu.
- **Berritzailea.** Gure jarduna etengabe egokitu eta berritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- **Parte hartzailea.** Pertsonen iritzi eta beharrak aintzat hartu eta pertsonekin lan egiteko.
- **Malgutasuna.** Errealitatera egokitzeko gaitasuna dugu.
- **Aukera berdintasuna.** Pertsona guztientzako lan egiten dugu, guztien aukera berdintasuna bermatuz, behar bereziak dituzten pertsonak bereziki aintzat hartuta.
- **Motibazioa.** Gure egitekoan sinistuta pertsonekin egiten dugun lanarekiko gogo eta hobetzeko helburuarekin egiten dugu.



01. 2

2017-2020

LEGEALDIRAKO

ERRONKAK

-



1.- Sailaren izaera sortzea/sendotzea

Sailaren berdefinizioaren oinarritako bat, adin ziklo ezberdinen araberako funtzionamendua garatzea da. Zentzu horretan, erronka honek HAURREN, NERABEEN eta GAZTEEN inguruko gogoeta garatzea bilatzen du. Haurren, nerabeen eta gazteen beharrak ezagutu eta interbentzio zehatzak planteatuko dira erronka honekin.

Haurrekin, nerabeekin eta gazteekin Donostian nola garatu daiteken lan integral bat hausnartzeko eta definitzeko espazioak sortuko dira.

2.- Sailaren zabalkundea eta ikusgarritasuna garatzea

Sailatik egiten denaren hedapena eta lan komunikatiboa areagotzeko beharra nabaria da.

Asmoa Donostiako haur, nerabe eta gazteen bizitzan eragina izango duen agente bat bilakatzea bada, ikusgarritasun hori gauzatzeko neurri ezberdinak hartuko ditugu.

Komunikazio aldetik egin beharreko lanak, egokitze lanketa bat suposatuko du. Adin tarte ezberdinetako jasotzaileek, komunikaziorako kode, hizkuntza eta plataforma komunikatibo propioak dituzte. Beraz, eta aurreko orrietan aipaturiko "malgutasunaren" printzipioan oinarrituta, beharrezkoa izango da garai eta belaunaldi berrien beharretara egokitzea. Gazteria Sailaren erronka bat dudarik gabe.

3.- Haur, nerabe eta gazteentzako atalak indartzea

0-30 zikloa zabalegia izanik, adin zikloen araberako espezializazioa garatzea proposatzen da. Modu honetan, pertsonen beharrei hobeto egokitzeko aukera egongo da, arloaren jarduna bera tresna erreal eta baliagarria izanda.

4.- Zeharkakotasuna sustatzea

Gazteria Sailaren erronka da ere, gazteriaren ahotsa eta ikuspegia udal politika eta eremu ezberdinetara eramatea. Horretarako, departamentu eta eragile ezberdinekin elkarlana sendotu beharko da, gazteen beharrak aintzat hartuko dituzten politika integralak sortzeko helburuarekin.

Gazteria Sailak, haurren, nerabeen eta gazteen bozgorailu izateko borondatea du. Borondate honen adibide garbiena da udalak diseinatzen dituen politikei haurren, nerabeen eta gazteen ikuspegia txertatzea, horretarako gazte “betaurreko”ekin aztertuz udal politikak.

5.- Profesionalen ezagutza eta kualifikazioa bultzatzea

Adinkako antolaketa bat oinarri izango duen egiturak, espezializazio handiko egitura izatea suposatuko du. Espezializazio hori kudeatuko duten langileen formazioa eta kualifikazioa inportantea izango da.

6.- Sail bezala funtzionatzeko beharrezkoa den egitura eta antolaketa definitu eta abian jartzea

Gazteria Saila definitu ondoren, definizio berri hau aurrera eramateko, sailaren antolaketa eta funtzionamenduan aldaketa inportanteak planteatzen dira. Erronka, helburu eta ekintza berriei eusteko, ezinbestekoa suertatzen da lan egiteko moduak helburu hauei egokituta egotea. Beste modu batera esanda, helburu berriei egokitutako “makinaria” antolatu beharra dago.

Funtzionatzeko modu berri honek bi aspektuei erantzungo die bereziki:

1.- Berrantolaketa:

- Gazteria Sailaren egitura, ardurak, zereginak.
- Sailean lan egiten dugunon arteko koordinazioa zehaztu.

2.- Kudeaketa prozesuak:

- Urtez urtekako planak diseinatu, garatu eta ebaluatu.

Erronka horiek lortzeko **ezarri ditugun helburuak** honakoak dira, hurrengo urtez urtekako planifikazioarekin:

ERRONKAK	HELBURUAK	2017	2018	2019	2020
1.- Sailaren izaera sortzea/sendotzea	1.1. Haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako atalak sortu, definitu				
2.- Sailaren zabalkun-dea eta ikusgarritasuna garatzea	2.1. Informazio eta Komunikazio Zerbitzua kudeatu				
	2.2. Sailaren komunikazio plana garatu				
	2.3. Zerbitzuen ikusgarritasuna garatu. Zerbitzuetan egiten dena, kanpo komunikazioan landu				
	2.4. Sailaren urtez urtekako planen aurkezpenak egin				
3.- Haur, nerabe eta gazteentzako atalak indartzea	3.1. Haurrentzako Atala indartzea				
	3.1.1. Haurtxokoak kudeatu				
	3.1.2. Haurtxokoen proiektuaren zehaztasunak erredaktatu				
	3.1.3. Haurtxokoen sarea osatu. Auzo berrietara zabaldu				
	3.1.4. Haurtxokoen etengabeko egokitzapena, hobekuntza sustatu				
	3.1.5. Haurren parte hartzea sustatu				
	3.1.6. 0-5 urte bitarteko haurrentzako eta familientzako eskaintza garatu				
	3.1.7. Opor garaietako eskaintza garatu				
	3.2. Nerabeentzako Atala indartzea				
	3.2.1. Gaztelekuak kudeatu				
	3.2.2. Gaztelekuen proiektuaren zehaztasunak erredaktatu				
	3.2.3. Gaztelekuen sarea osatu. Auzo berrietara zabaldu				
	3.2.4. Gaztelekuen etengabeko egokitzapena, hobekuntza sustatu				
	3.2.5. Nerabeen parte hartzea sustatu				
	3.2.6. Nerabeei zuzenduriko aisialdiko eskaintza indartu				
3.2.7. Nerabeen autonomia sustatu					



ERRONKAK	HELBURUAK	2017	2018	2019	2020
	3.3. Gazteentzako Atala indartzea				
	3.3.1. Kontadores Gazte Zentroa kudeatu				
	3.3.2. Kontadoreseko proiektuaren zehaztasunak erredaktatu				
	3.3.3. Kontadoreseko etengabeko egokitzapena, hobekuntza sustatu				
	3.3.4. Txantxarrekarekin elkarlana zehaztu				
	3.3.5. Gazteentzako espazio ereduak aztertu eta Gazteriaren erantzukizuna, rola definitu				
	3.3.6. Gazteen sormena eta berrikuntza sustatu / gazteak hiriko eragile aktibo eta sortzaile diren heinean, babesa eta laguntza eskaini				
	3.3.7. Nazioarteko mugikortasuna sustatu				
	3.3.8. Emantzipazioa eta autonomia landu				
	3.3.9. Gazteen parte hartzea sustatu				
	3.4. Haurrak, nerabeak eta gazteak sustatzeko ekimenak laguntzeko bideak, baliabideak indartzea				
	3.4.1. Diru laguntza konkurrenteak kudeatu				
	3.4.2. Diru laguntza zuzenak kudeatu				
	3.4.3. Lagatutako lokalen inguruko esku hartzea indartu				
4.- Zeharkakotasuna sustatzea	4.1. Udaleko zeharkakotasun politikak sustatu				
	4.2. Sailen arteko lankidetzak sustatu, helburu zehatzetan oinarrituta / zeharkakotasunaren kultura eta dinamika sortzen joan				
	4.3. Estrategikoak izan daitezkeen eragileekin koordinazioa bultzatu				
5.- Profesionalen eza-gutza eta kualifikazioa bultzatzea	5.1. Profesionalak trebatu eta gaitu				
6.- Sail bezala funtzionatzeko beharrezkoa den egitura eta antolaketa definitu eta abian jartzea	6.1. Sailaren egitura, organigrama aztertu eta diseinatu				
	6.2. Sailean lan egiten dugunon arteko koordinazioa zehaztu				
	6.3. Urte bakoitzeko inplementazio planak diseinatu, garatu eta ebaluatu				
	6.4. Baliabideak eta azpiegiturak kudeatu				



02

2017 URTEAN GARATUKO DIREN EKINTZAK

-

Legealdiko erronketan oinarrituta, urtez urtekako planak diseinatzea, gauzatzea eta ebaluatzea da asmoa.

Beraz, jarraian aurkeztuko duguna 2017ko inplementazio plana da. Erronka eta helburu orokorretan oinarrituta, zehazki 2017an zein ekintza gauzatuko ditugun.

Lehentasunak identifikatu behar izan ditugu, Gazteriako 2017-2020 Planarekin nondik abiatu jakiteko.

Aurkezpenean adierazi dugun moduan, planak jasoko dituen ekintzek bi beharrei erantzungo diete:

- **ZER egin nahi dugun.** Garatuko dugun eskaintzarekin lotutako ekintzak.
- **NOLA egin nahi dugun.** Lan egiteko modu berriarekin erlazionatutako ekintzak.

2017ko plan honetan azpimarratzeko ideiak honakoak dira:

- Gazteria Saila **3 adin tarte ezberdinduz** antolatu dugula: Haurrak (0-11 urte), Nerabeak (12-17 urte) eta Gazteak (18-30 urte). Eta adin tarte bakoitzarentzat propio diseinatutako eskaintza garatuko dugula.

Adin tarteak ezberdintzeak, honakoak suposatzen ditu:

- **Atal bakoitzaren xehetasunak definitzeko beharra,**
- Adin tarte bakoitzaren beharrei osotasunez erantzun ahal izateko, **zeharkakotasunez lan egiteko beharra,**

Zeharkakotasunez lan egitea zaila da eta zailtasun horiek gainditzeko, proiektu zehatzen inguruan eta helburu zehatzak partekatuz lan egitea dela biderik egokiena uste dugu.

- **Barruko antolakuntza berri bat diseinatzeko eta martxan jartzeko beharra**

Sail bezala, funtzionatzeko eta lan egiteko modu berri bat garatzen ari gara. Beste era batera lan egiteko nahia nabaria da.

Honekin, Sailaren egitura, ardurak eta zereginak eta Sailean lan egiten dugunon arteko koordinazioa zehazteaz gain, urtez urte ekintza zehatzak diseinatu, garatu eta ebaluatuko dira. Urtez urtekako planen diseinuan eta ebaluazioan zentratuko gara.

Baina nabarmendu nahi duguna da, lanketa hau Donostiako HAURREKIN, NERABEEKIN eta GAZTEEKIN egin nahi dugula eta egingo dugula.

Ekintzak hurrekin, nerabeekin eta gazteekin diseinatuko dira eta erabiltzaile eta hartzaile hauen balorazioak eta inpresioak jasotzen saiatuko gara, lan egiteko modu berri honekin.

- Eta **guztia** behar bezala **komunikatu eta zabaltzeko beharra.**

Idea hauei erantzuten dieten ekintzak dira aurten garatuko ditugunak. Jarraian nabarmenenak azalduko ditugu:



01.2.1

SAILAREN IZAERA SORTZEA/SENDOTZEA

—



ERRONKA	HELBURUAK	EKINTZAK 2017
1.- SAILAREN IZAERA SORTZEA/ SENDOTZEA	1.1. Haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako atalak sortu, definitu	1.1.1. Sailaren berrantolaketaren justifikazio teorikoa landu

01.2.1. SAILAREN IZAERA SORTZEA/SENDOTZEA

1.1. Haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako atalak sortu, definitu

1.1.1. Sailaren berrantolaketaren justifikazio teorikoa landu

Arduraduna: Miren Mancisidor

HELBURUA:

Gazteria Sailaren jardun eremua bilduko duen dokumentua osatzea izango da ekintza honen helburua. Sailaren misio eta bisio orokorrak azaltzeaz gain, adin tarte bakoitzaren berezitasunak jasoko ditu, baita ziklo bakoitzean zein erronkei eutsi nahi zaien ere.

Horretaz gain, sailaren funtzionamendurako beharrezkoak izango diren egitura eta kudeaketa prozesuak jasoko dira.

- 1.- Egituraketak, arloko kideen funtzio eta ardura banaketa orokorra jasoko du.
- 2.- Eta kudeaketa prozesuak, arloan lan egiten duten pertsonen arteko harreman eta koordinazio mailak zehaztuko ditu, baita legegaldiko plan estrategikoa garatzeko jarraituko den prozedura ere.

Prozedurarekin honakoa esan nahi da:

- Urtez urtekako planen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa
- Baliabideen eta azpiegituren kudeaketa
- Jakintzaren kudeaketa
- Kalitatearen kudeaketa

NOLA GARATUKO DA:

Aztikerrekin egindako berdefinizio prozesuaren txostenetik abiatuko gara.

Hasiera batean dokumentua izango denaren zirriborro bat prestatuko da eta saileko organo teknikoak aztertu eta osatuko du.

EGUTEGIA:

Ekintza apirilean hasi eta uztailean amaituko da.

Adierazlea	Estandarra
Sailaren berrantolaketaren justifikazio teorikoa jasoko duen dokumentua	Egina uztaileko



01.2.2

SAILAREN ZABALKUNDEA ETA IKUSGARRITASUNA GARATZEA

-



ERRONKA	HELBURUAK	EKINTZAK 2017
2.- SAILAREN ZABALKUNDEA ETA IKUSGARRITASUNA GARATZEA	2.1. Informazio eta Komunikazio Zerbitzua kudeatu	2.1.1. Arreta lanak (presentziala, emailak)
		2.1.2. Baliabideak elikatzea (datu baseak, boletina, webgunea, sare sozialak)
		2.1.3. Gazteak datu basea: gure publiko objetiboaren datuak egunean izateko bideak jorratzea
	2.2. Sailaren komunikazio plana garatu	2.2.1. Komunikazio estrategia zehaztu kanpoko laguntzarekin
		2.2.2. 2017rako komunikazio ekintzak zehaztu, identifikatu eta garatu
	2.3. Zerbitzuen ikusgarritasuna garatu. Zerbitzuetan egiten dena, kanpo komunikazioan landu	2.3.1. Haurtxokoetan facebook kontuak sortu
		2.3.2. Instagram erabili eta elikatzeko gida garatu, Gazteleketako hezitzaileei zuzendua
		2.3.3. Gazteleketan WhatsApp taldeak sortzearen inguruko hausnarketa egitea
		2.3.4. Kontadoreseko web gune berriaren abiatzea
		2.3.5. Foru Aldundiko komunikazio taldeak proposatutako komunikazio ekintzak aztertu eta ekintza horietaz baliatu.
		2.3.6. Gaztematikatik sustatutako Gipuzkoako udal Haurtxoan eta Gaztelekuaren sarearen komunikazio kanpainan parte hartu
	2.4. Sailaren urtez urtekako planen aurkezpenak egin	2.4.1. Aurkezpen estrategia diseinatu eta gauzatu: Ekintzak, eragileak...

01.2.2. SAILAREN ZABALKUNDEA ETA IKUSGARRITASUNA GARATZEA

2.2. Sailaren komunikazio plana garatu

2.2.1. Komunikazio estrategia zehaztu kanpoko laguntzarekin Arduraduna: Aitor Oiarzabal

HELBURUA:

Gazteria Sailaren barne zein kanpo komunikazio planaren diseinua egitea eta planaren garapenerako urratsak identifikatzea.

NOLA GARATUKO DA:

Plana garatzeko kanpoko enpresa baten laguntza izango dugu, Arteman hain zuzen ere. Gazteriako Organo Teknikoan garatuko dugu ekintza hau, lan taldean.

Honakoak izango dira jarraituko diren pausoak, faseak:

1.- Egoeraren diagnosis eta branding-a:

Komunikazio Plan Estrategikoa garatzeko beharrezkoa da oinarritzat hartuko den diagnosis eta erakundearen marka nortasuna abiapuntutzat hartzea.

Diagnostikoa garatuko dugu, **barne zein kanpo komunikazioari** erreparatuko diegu, testuinguruari arreta berezia eskainiz.

Gainera, teknikariek branding saio dinamikoa batean parte hartuko dugu, **marka orokor eta segmentuen identitate eta posizionamendua definituko dira.**

Zer gara? Nola bereiztu behar gara? Zer esan behar dugu?... bezalako galderari erantzungo diegu dinamikaren bidez.

Lehen fase honetako helburuak dira: alde batetik, **Gazteria Sailaren Komunikazioaren barne eta kanpo egoera plasmatu eta aukera berriak topatu; eta, bestetik, markaren izaera / identitatea definitu eta taldean baneratu.**

2.- Komunikazioaren estrategia

Lehenengo faseko diagnosis eta marka izaeraren definizioa bideratuta, **komunikazio estrategian** murgiltzeko ordua izango da. Urrats honetan, komunikazio arazoak mahai gainean jarrita eta jasotako informazioarekin baliatuta, **nora eta nola** joan zehazten hasiko gara.

Hori horrela izanik, **komunikazio beharrak** zehaztu eta horiei aurre egiteko **helburu orokor eta zehatzak** definituko dira. Horrekin batera, **publiko xedeen** bereizketa eta aukeraketa egin, markaren kontakizuna garatu eta akzio plana bideratzeko komunikazio dimentsioak finkatuko dira.

Barne beharrei arreta berezia eskainiko zaie eta **komunikazio alorreko formazioa** bideratuko da. Aurretik esan bezala, **estrategia globala** izan dadin, komunikazio alor ezberdinei erreparatuko zaie: marka nortasuna, barne komunikazioa, kanpo komunikazioa, komunikazio digitala...



3.- Planifikazio, jarraipen, ebaluazioa

Norabidea definiturik dugula, **exekuzioan** pentsatzen hasiko gara; azken fase honetan, **akzio, kudeaketa eta ebaluazio** plana prestatuko dugu. Azken emaitzak **taldearen komunikazio gida bezala funtzionatuko du, Gazteria Sailaren bilakaera prozesuan ezinbesteko erreminta izango da.**

Aurreko faseetan identifikaturiko egoera, helburu eta publikoetara egokituriko **komunikazio akzio, prozedurak eta hobekuntzak** definituko dira. Era berean, taldearen lana erraztu eta sistematizatzeko helburuarekin, **kronograma, ardurak, aurrekontuak eta jarraipenerako adierazleak** aurkeztuko dira.

Komunikazio Planaren diseinua prest, **Gazteria Saila prest egongo da aurkezturiko akzioak aurrera eramateko.**

EGUTEGIA:

- 1.- Egoeraren Diagnostika eta Branding-a: Martxoan garatuko da.
 - Aurkezpen bilera.
 - Branding saioa.
- 2.- Komunikazio estrategia: Apirila eta maiatzean zehar garatuko da.
 - Diagnostika eta branding-aren ondorioak eta strategiaren bideratzearen "zirriborroa".
 - Arduradunari aurkeztu eta egokitu.
 - Taldean partekatu eta komunikazio estrategia finkatu.
- 3.- Planifikazio, jarraipen eta ebaluazioa: ekaina eta uztailean zehar garatuko da.
 - Akzio plana diseinatu.
 - Arduradunari aurkeztu eta egokitzapena.

AZKEN EMAITZA: **KOMUNIKAZIO PLAN ESTRATEGIKOAREN TXOSTENAREN AURKEZPENA**

Adierazlea	Estandarra
Komunikazio planaren dokumentua	Egina uztaileko



01.2.3

HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAKO ATALAK INDARTZEA

-



ERRONKA	HELBURUAK	EKINTZAK 2017
3.- HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAKO ATALAK INDARTZEA	3.1. Haurrentzako Atala indartzea	
	3.1.1. Haurtxokoak kudeatu	3.1.1.1. Kudeaketarako pleguen garapena
		3.1.1.2. Zerbitzuen jarraipena (plangintza, exekuzioa, ebaluazioa) eta zerbitzuak kudeatzen dituen entitatearekin koordinazioa
		3.1.1.3. Baliabideen eta azpiegituren kontrola
	3.1.2. Haurtxokoen proiektuaren zehaztasunak erredaktatu	3.1.2.1. Haurtxokoen definizioa, araudia eta zerbitzuen katalogoaren zehaztapenak
	3.1.3. Haurtxokoen sarea osatu. Auzo berrietara zabaldu	3.1.3.1. Larratxo auzoan Haurtxokoa zabaltzeko proposamena garatu, irekiera prozesua
		3.1.3.2. Beste auzoetako aukerak aztertu. Parte Zaharra, Antigua, Loiola
		3.1.3.3. Amarako Kultur Etxearen obraren jarraipena
		3.1.3.4. Roteta Berri Haurtxokoa udal zerbitzu bilakatzeko aukerak landu
	3.1.4. Haurtxokoen etengabeko egokitzapena, hobekuntza sustatu	3.1.4.1. Erabiltzaileen beharren araberako antolakuntza/egokitzapenak gauzatu
		3.1.4.2. Ebakuazio planak garatu: Egia, Bidebieta, Martutene
		3.1.4.3. Gure Txokoren inplementatzea – Berdintasuna
		3.1.4.4. Ongi etorri proiektua garatu
		3.1.4.5. Egiako Haurtxokoan transizio prozesuarekin jarraitu
	3.1.5. Haurren parte hartzea sustatu	3.1.5.1. Haurtxokoetan Haur Partaidetza egitasmoa garatu
		3.1.5.2. Haurren parte hartzearen inguruko sareak, inizatibak ezagutu eta aukerak aztertu
		3.1.5.3. Izarrak Plazara programan parte hartu
3.1.6. 0-5 urte bitarteko haurrentzako eta familientzako eskaintza garatu	3.1.6.1. Adin tarte honi zuzenduriko eskaintzaren eta eskaeren inguruko argazkia osatu, Gizarte Ekintzarekin batera	
	3.1.6.2. 0-5 urte bitarteko haurren gurasoen proiektuei laguntza eskaini	
	3.1.6.3. Intxhaurgune, Egihaurgune eta Emeki-Emekiren egitasmoen jarraipena	
3.1.7. Opor garaietako eskaintza garatu	3.1.7.1. Gabonak Zuretzat programaren antolaketa	
	3.1.7.2. Udako eskaintzaren azterketa egin	



ERRONKA	HELBURUAK	EKINTZAK 2017
3.- HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAKO ATALAK INDARTZEA	3.2. Nerabeentzako Atala indartzea	
	3.2.1. Gaztelekuak kudeatu	3.2.1.1. Kudeaketarako pleguen garapena 3.2.1.2. Zerbitzuen jarraipena (plangintza, exekuzioa, ebaluazioa) eta zerbitzuak kudeatzen dituen entitatearekin koordinazioa 3.2.1.3. Baliabideen eta azpiegituren kontrola
	3.2.2. Gaztelekuen proiektuaren zehaztasunak erredaktatu	3.2.2.1. Gaztelekuen definizioa, araudia eta zerbitzuen katalogoaren zehaztapenak
	3.2.3. Gaztelekuen sarea osatu. Auzo berrietara zabaldu	3.2.3.1. Larratxo auzoan Gaztelekua zabaltzeko proposamena garatu, irekiera prozesua
		3.2.3.2. Beste auzoetako aukerak aztertu. Parte Zaharra, Antiguoa, Loiola
		3.2.3.3. Amarako Kultur Etxearen obraren jarraipena
	3.2.4. Gaztelekuen etengabeko egokitzapena, hobekuntza sustatu	3.2.4.1. Adin tartearen aldaketaren egokitzapenak egin.
		3.2.4.2. Ebakuzio plana garatu Bidebietako Gaztelekuan
		3.2.4.3. Gure Txoko egitasmoaren inplementatzea – Berdintasuna
		3.2.4.4. Gaztelekuetan Instant 1ean proiektua landu
	3.2.5. Nerabeen parte hartzea sustatu	3.2.5.1. Gazte Batzordeak kudeatu Gaztelekuetan
		3.2.5.2. Izarrak Plazara programan parte hartu
		3.2.5.3. Nerabeen iritzia jasotzeko esperientzian parte hartu, Bidebietako Gaztelekuan.
	3.2.6. Nerabeei zuzenduriko aisialdiko eskaintza indartu	3.2.6.1. Aarhus-en ospatuko den European Youth Consensus Gazte Topaketan 14-17 urte bitarteko 8 gazteren parte hartzea ziurtatu
		3.2.6.2. Wiesbaden Street Art Youth Project elkartrukean parte hartu
		3.2.6.3. La Cañada (EEBB) eta Donostiaren arteko elkartrukearen jarraipena eta ikuskaritza egin
		3.2.6.4. Nerabeentzako dagoen eskaintzaren azterketa/irakurketa egin eta itun posibleak aztertzea, nerabeentzako aisialdiko eskaintza osatze aldera. Tabakalerarekin elkarlana, ElkarEkin proiektuaren baitan.
	3.2.7. Nerabeen autonomia sustatu	3.2.7.1. Gazte Lokalen inguruko esku hartzea: informazio eta orientazio lanak, gazte lokalen mahaiaren kudeaketa eta diru laguntzen tramitazioa
		3.2.7.2. Gizarte Ekintzarekin elkarlana, autonomia eta segurtasunaren inguruan
		3.2.7.3. Adinez txikientzako ekitaldiei buruzko departamentu arteko mahaiaren parte hartu



ERRONKA	HELBURUAK	EKINTZAK 2017
3.- HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAKO ATALAK INDARTZEA	3.3. Gazteentzako Atala indartzea	
	3.3.1. Kontadores Gazte Zentroa kudeatu	3.3.1.1. Kudeaketarako pleguen garapena
		3.3.1.2. Langileen perfilen azterketa. Zerbitzuak dituen beharren arabera, langileen arduren, zereginen eta baldintzen zehaztapena
		3.3.1.3. Zerbitzuaren jarraipena (plangintza, exekuzioa, ebaluazioa) eta zerbitzua kudeatzen duen entitatearekin koordinazioa
		3.3.1.4. Baliabideen eta azpiegituren kontrola
	3.3.2. Kontadoreseko proiektuaren zehaztasunak erredaktatu	3.3.2.1. Kontadores zentroaren definizioa, araudia eta zerbitzuen katalogoaren zehaztapenak
	3.3.3. Kontadoreseko etengabeko egokitzapena, hobekuntza sustatu	3.3.3.1. Instalazioan hobekuntzak gauzatu: aparteko sarrera, señaletika, harrera espazioa/topagunea, materialaren berritzea
		3.3.3.2. Ebakuazio plana garatu Kontadoresean
		3.3.3.3. Kontadores eraikinaren inguruko hausnarketa garatu
	3.3.4. Txantxarrekarekin elkarlana zehaztu	3.3.4.1. 2017ko urrirarteko elkarlana zehaztu
		3.3.4.2. 2017ko urritik aurrerako elkarlana garatu
		3.3.4.3. Txantxarrekarekin lotura duten eragileekin koordinatu
		3.3.4.4. Eraikinean hainbat hobekuntza egitearen balorazioa gauzatu
	3.3.5. Gazteentzako espazio ereduak aztertu eta Gazteriaren erantzukizuna, rola definitu	3.3.5.1. Espazioak identifikatu eta harremana ahalbidetu
		3.3.5.2. Zarauzko Gazteentzako Zerbitzuaren egitasmoaren jarraipena
	3.3.6. Gazteen sormena eta berrikuntza sustatu / gazteak hiriko eragile aktibo eta sortzaile diren heinean, babesa eta laguntza eskaini	3.3.6.1. Gazteen Antzerki Topaketaren antolaketa
		3.3.6.2. Eszena amateurraren sustapena (arte disziplina ezberdinen sustapena): koordinazio mahaia sortu, mikroantzerkia, DJ erakustaldia, lankidetzak eragile ezberdinekin
		3.3.6.3. Gazte epaimahaien kudeaketa: Beldur Astea, DJ erakustaldia, su artifizialak, sukaldaritza lehiaketa aste nagusian, Giza Eskubideen zinemaldiko epaimahaia...
		3.3.6.4. Gure Kabuz irratsaioaren kudeaketa
	3.3.7. Nazioarteko mugikortasuna sustatu	3.3.7.1. Gaztematikako Erasmus+ lan taldean 18 urtetik goragokoentzako elkartrukea proposatu eta gauzatu
3.3.8. Emantzipazioa eta autonomia landu	3.3.8.1. Gazteen inizatiba berrietan lagundu/bidelagun izan	
	3.3.8.2. Gazte ikasleen praktikak Udalean sustatu	
	3.3.8.3. Sustapenetik eta Etxegintzatik gazteentzako diseinatzen diren egitasmoen ezagutza	
	3.3.8.4. GazteLabel egitasmoan parte hartu	



ERRONKA	HELBURUAK	EKINTZAK 2017
	3.3.9. Gazteen parte hartzea sustatu	3.3.9.1. Loadinn-ekin lankidetzaz hitzarmena sinatu, gazteen parte hartzea sustatze aldera.
		3.3.9.2. Gazteria Saileko hainbat zeregin/zerbitzu gazteen bidez gauzatzea: Kontadoreseko irakasleak, Gabonetako Haur Parkeko tailerren antolaketa, Gazteriako programa ezberdinen irudien diseinua...)
	3.4. Haurrak, nerabeak eta gazteak sustatzeko ekimenak laguntzeko bideak, baliabideak indartu	
	3.4.1. Diru laguntza konkurrenteak kudeatu	3.4.1.1. 2017ko diru laguntza konkurrenteen kudeaketa
		3.4.1.2. Administrazio elektronikoko egoera berrira egokitzapena
		3.4.1.3. Komunikazio lanak
	3.4.2. Diru laguntza zuzenak kudeatu	3.4.2.1. Roteta Berri-ren diru laguntzaren kudeaketa
		3.4.2.2. Txomin Enea-ren diru laguntzaren kudeaketa
		3.4.2.3. Besteak
	3.4.3. Lagatutako lokalen inguruko esku hartzea indartu	3.4.3.1. Lagatutako lokalen mahaiaren parte hartu
		3.4.3.2. 0-5 urteko egitasmoen inguruko lokal eskaerei erantzun bat eman
		3.4.3.3. Aratz-i lagatutako lokala, Ategorrieta-Uliako auzo elkarteak erabiltzeko/konpartitzeko aukera aztertu
		3.4.3.4. Lokal eskaera berrien azterketa egin
		3.4.3.5. Lagatutako lokalen diagnostikoa eta jarraipena egin

01.2.3. HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAKO ATALAK INDARTZEA

Zerbitzuei dagokienez, udal Haurtxokoen, Gaztelekuen eta Kontadores Gazte Zentroaren kudeaketak barneratzen dira erronka honetan. Zentzu horretan, eta kontuan hartuta 2018ko ekainean, indarrean dauden kudeaketa lehiaketak amaitzen direla, aurten kudeaketa plegu berrien garapenarekin hasiko gara.

Era berean, adin tarte ezberdinei zuzenduriko zerbitzuen zehaztasunak erredaktatuko ditugu. Hau da, Haurtxokoen, Gaztelekuen eta Kontadores Gazte Zentroaren araudiak eta bakoitzeko eskaintzaren zehaztapenak jasotzen saiatuko gara.

Aurten ere nabarmentzekoa izango da, Haurtxokoen eta Gaztelekuen udal sarea Larratxo auzora zabalduko dela. Urte honen amaieran, abenduan, Larratxon Haurtxoko bat eta Gazteleku bat zabaltzea aurreikusten da.

Haurtxokoen eta Gaztelekuen kasuan ere, erabiltzaileen adin tarteetan aldaketak egon dira 16/17 ikasturtean, beraz adin tarte bakoitzaren beharren arabera egokitzapenak gauzatuko dira.

Udal zerbitzuak kudeatzeaz gain, adin tarte bakoitzari eskaintza eta erantzun osatuago bat garatzea izango da erronka. Hortik abiatuta, honakoak dira azpimarratzen eta nabarmentzen ditugun ideiak adin tarte bakoitzean:

Haurtzako Atalean, 0-5 urte bitarteko haurtzako eta familientzako eskaintzari buruzko hausnarketari eustea eta opor garaietako eskaintza aztertu eta osatzeko aukerak edota beharrak identifikatzea.

Nerabeentzako Atalean, nerabeei zuzenduriko aisialdiko eskaintza indartzea eta hauen autonomia sustatzeko helburuarekin, bereziki Gizarte Ekintzarekin elkarlanean aritzea, gazte lokalen eta adikzio planaren inguruan.

Gazteentzako Atalean, hirian dauden gazteentzako bestelako espazioak identifikatzen eta harremanak sortzen joatea izango da asmoa. Gazteen sormena eta berrikuntza sustatzeko ekimenak ere gauzatuko dira. Eta nabarmentzeko beste ideia bat, gazteen inizatiba berrietan bidelagun izan nahi du eta izango da Gazteria Arloa.

Azkenik, eta hiru adin tarteak kontuan hartuta, haurren, nerabeen eta gazteen parte hartzearen sustapena nabarmendu nahi dugu. Esfortzu eta ekimen bereziak garatuko dira adin tarte guztietan parte hartzea bultzatzeko.

**3.1. HAURRENTZAKO ATALA INDARTZEA****3.1.2. Haurtxokoen proiektuaren zehaztasunak erredaktatu****3.1.2.1. Haurtxokoen definizioa, araudia eta zerbitzuen katalogoaren zehaztapenak**

Arduraduna: Nora Urkidi

HELBURUA:

Haurtxokoak udal zerbitzu publikoak diren heinean, bai administrazioak berak eta baita herritarrek ere beraien eskubideak eta betebeharrak zeintzuk diren jakin behar dute.

Donostiako udal Haurtxokoen funtzionamendua, araudia eta zein zerbitzu eskainiko diren zehaztuko duen arautegia definitzea du helburu.

NOLA GARATUKO DA:

Haurtxokoen eta Gaztelekuen araudia eta zerbitzuen katalogoak erredaktatuko dira. Beraz, Haurren Ataleko arduraduna eta Nerabeen Ataleko arduraduna izango dira honen lidergoa eramango dutenak, beti ere Haurtxoko eta Gaztelekuen sareko 3 koordinatzaileekin koordinatuta. Lan taldean garatuko den ekintza da.

1. Haurtxoko bakoitzaren funtzionamendua jasoko da.
2. Funtzionamenduan antolaketa komuna identifikatu eta jasoko da.
3. Haurtxoko bakoitzean eskaintzen diren zerbitzuak jasoko dira (programak eta zerbitzuak).
4. Jasotako guztiarekin araudi zirriborro bat egingo da.
5. DKrekin kontrastatuko da eta beraien eta gure araudien arteko kontraesanak ekiditen saiatuko gara.
6. Dena aztertu ondoren, araudia idatziko da.
7. Zerbitzuen katalogoa idatziko da.

EGUTEGIA:**Martxoaren 1etik irailaren 10era.**

Zirriborroarekin lanean hasi, udara aldera DKrekin adostasuna landu eta hurrengo ikasturte hasierarako indarrean egoten edo martxan jartzen saiatu.

Adierazlea	Estandarra
Araudia eta zerbitzuen katalogoa argitaratu	Egina Irailerako

3.1. HAURRENTZAKO ATALA INDARTZEA**3.1.3. Haurtxokoen sarea osatu. Auzo berrietara zabaldu****3.1.3.1. Larratxo auzoan Haurtxokoa zabaltzeko proposamena garatu, irekiera prozesua****Arduraduna: Nora Urkidi****HELBURUA:**

Altza- Larratxo auzoan, orain arte ez dagoen, Udal Haurtxokoa zabaltzea.

NOLA GARATUKO DA:

Lokalaren obra proiektua aurrera eraman behar duen Proiektu eta Obretako sailarekin koordinazioan, espazioaren diseinua zehaztuko da, Haurtxoko batek dituen behar eta ezaugarrietara egokituz. Behin espazioaren obra egina dagoela, espazioa egokitu eta prestatuko da (altzariak, fondo ludikoa, ekintzatarako materiala,...).

Barne espazioa atontzeaz gain, kanpoko espazioan ere esku hartzeko asmoa dugu. Belargune bat dago bi espazioen kanpoaldean eta hau proiektuarekin lotu nahi dugu, kanpoko espazio hori gureganatuz eta jokorako espazio bihurtu (baratza, negutegi, zabu.. jarri). Barnealdea eta kanpoaldea erabat loturik. Sare osoan mota honetako lehenengo esperientzia litzateke.

Horretaz gain, zerbitzuaren inguruko alderdiak zehaztuko dira (pertsonala- hezitzaileak, egutegia, programazioa,...) eta irekierari begira komunikazio eta difusio kanpaina martxan jarriko dira.

Ekintza hau lan taldean garatuko da, haurren ataleko arduradunaren eta nerabeen ataleko arduradunaren artean.

EGUTEGIA:

2016ko azaroa- 2017ko maiatza: Obra proiektuaren diseinua.

2017ko ekaina: Obra proiektuaren lizitazioa.

2017ko uztaila- urria: Obraren exekuzioa.

2017ko iraila-abendua: Kanpoko espazioaren esku hartze proiektua

2017ko azaroa- abendua: Lokalen prestakuntza.

2017ko azaroa-abendua: Haurtxoko eta Gaztelekuak kudeatzen dituen enpresaren kontratua handitzea.

2017ko abendua: Irekieraren komunikazioa eta zerbitzuaren difusioa.

2017ko Gabonak: Haurtxokoaren irekiera.

Adierazlea	Estandarra
Gabonetarako Larratxoko eskaintza irekia egotea	Egina

3.1. HAURRENTZAKO ATALA INDARTZEA

3.1.4. Haurtxokoen etengabeko egokitzapena, hobekuntza sustatu

3.1.4.1. Erabiltzaileen beharren arabeko antolakuntza/egokitzapenak gauzatu

Arduraduna: Nora Urkidi

HELBURUA:

Haurren beharrei egokitutako zerbitzua eskaintzea. Egoera berriei eta errealitateari egokituko diren zerbitzuak izatea.

Donostiako udal Haurtxoko sareak, haurrek auzo bakoitzeko zerbitzuaz egiten duten erabilpena beraien beharretara egokitzeko nahia du.

Haurtxoko guztiek zenbait ezaugarri komun izanda (batez ere ordutegi eta egutegia) eta zerbitzu publiko honen eskaintza bermatzea abiapuntutzat hartuta, auzo bakoitzak bere beharren arabeko antolakuntza propioa izango du.

Antolakuntza hau etengabe ebaluatzen egongo gara.

Antolakuntza honen helburua kalitatezko zerbitzu bat eskaintzea da.

Momentu honetan haurren beharrei egokitzeko eman diren pausoak hurrengoak izan dira: 2016ko irailetik aurrera haur txikiagoak etorri daitezke, Haur Hezkuntzako 5 urteko gelakoak, gizartean dagoen beharrari erantzuna emateko asmoarekin. Hauek etortzeak gure antolakuntzan moldaketak egiteko beharra ekarri du. Hezitzaileak egoera berri honetara egokitu behar izan dute, batetik ekintzak dinamizatzerako orduan, eta bestetik sartu-irteeren gaineko kontrolean.

Gurasoei gure haurren gaineko ardura azaltzeko eta edozein arazo ekiditeko, irteera ordu batzuk finkatu ditugu, orokorrean Haurtxoko guztietarako komunak. Baina baita kasuan-kasu, Haurtxoko bakoitzak bere berezitasunak izango ditu bere haurren beharren arabekoak.

NOLA GARATUKO DA:

Haurtxokoen arduradun teknikoa, Haurtxokoen koordinatzailearekin eta 3. koordinatzailearekin batera egingo dute egoeraren hasierako eta etengabeko azterketa.

1. Haurtxoko bakoitzaren funtzionamendua jasoko da.
2. Haurtxoko bakoitzaren haurren asistentziak aztertu.
3. Arazo komunak identifikatu.
4. Haurtxoko bakoitzaren irteerak noiz egiten diren aztertuko dira.
5. Funtzionamendu berriaren proposamena jasoko da. Neurri berriak proposatuko dira: Irteera berdin batzuk markatuko dira ordutegiaren barne, eta beharrezko berezitasunak eta txandak barneratuko dira.
6. Atalburuari aurkeztu, honek zuzendari eta zinegotziari ondoren.
7. DKri jakinaraziko zaio.
8. Zabalkundea prestatuko da.
9. Martxan jarriko da.
10. Ebaluaketa etengabekoa egingo da.

**EGUTEGIA:**

2016ko Irailetik 2017ko urtarrilera: azterketa eta proposamena

2017ko Otsaila: DK eta difusioa prestatu eta egin (mailing, kartelak, guraso bilerak)

2017ko Martxoak 1: martxan jarri

Adierazlea	Estandarra
Hezitzaileen balorazioa	Egitea
Gurasoen balorazioa	Egitea

3.1. HAURRENTZAKO ATALA INDARTZEA**3.1.5. Haurren parte hartzea sustatu****3.1.5.2. Haurren parte hartzearen inguruko sareak, inizatibak ezagutu eta aukerak aztertu**
Arduraduna: Miren Mancisidor**HELBURUA:**

Gazteria Sailak helburutzat du adin tarte bakoitzean parte hartzea sustatzea. Gaztematikatik, 2016-2017 ikasturterako "haurren partaidetza prozesuak garatzen laguntzeko" lan taldea osatu da. Ekintza hori aprobetxatuta, sailaren helburua, haurren parte hartzearen inguruko sareak, inizatibak ezagutzea da eta horietan parte hartzeko aukerak aztertzea.

NOLA GARATUKO DA:

Gaztematikako lan taldeaz baliatuko gara, bertatik ateratzen diren esperientziak eta aukerak aztertu eta gure sailerako lagungarriak izan daitezkeen ondorioak identifikatzeko.

EGUTEGIA:

Lan taldean lau bilera gauzatuko dira, 2016ko abendua eta 2017ko maiatza bitartean. Ondoren, urte amaiera bitartean, Donostiarako planteamendu bat egiten saiatuko gara.

Adierazlea	Estandarra
Gaztematikako lan taldean parte hartu	Bilera guztietan
Donostiarako planteamendu bat egitea	Egina urte amaierarako

3.1. HAURRENTZAKO ATALA INDARTZEA

3.1.6. 0-5 urte bitarteko haurrentzako eta familientzako eskaintza garatu

3.1.6.1. Adin tarte honi zuzenduriko eskaintzaren eta eskaeren inguruko argazkia osatu, Gizarte Ekintzarekin batera

Arduraduna: Miren Mancisidor

HELBURUA:

Orain arte Salletik gehiegi garatu ez den adin ziklo bat da. Egun, bi haurguneen proiektuak diruz laguntzen dira: Intxhaurgune eta Egihaurgune. Beste auzo batzuetan antzeko mugimenduak sortzen ari dira. Eta 0-5 adin tartarako espazio eskaera dago gurasoen aldetik.

Pertsonen garapenean berebiziko garrantzia duen adin zikloa dela baloratzen da. Gazteria Salletik, 0-5 adin tarteari zuzenduriko estrategiaren inguruko hausnarketa egiten hasi nahi dugu.

Gizarte Ekintzatik ere landu nahi duten adin tarte bat dela jakin dugu. Adin tarte honetan esku hartzeko beharra sumatu dute, prebentzio mailan. Eta bi sailen artean, adin tarte honekiko ditugun ideiak, asmoak, beharrak... konpartituko ditugu.

Adierazlea	Estandarra
Gizarte Ekintzarekin helburua adostu	Egina

**3.1. HAURRENTZAKO ATALA INDARTZEA****3.1.7. Opor garaietako eskaintza garatu****3.1.7.2. Udako eskaintzaren azterketa egin****Arduraduna: Miren Mancisidor****HELBURUA:**

Egun eten egiten da Gazteria Sailaren esku hartzea uztaila eta abuztuan zehar. Haurtxokoak, Gaztelekuak eta Kontadores Gazte Zentroa itxi egiten dira bi hilabete hauetan eta sailetik ez da bestelako eskaintza berezirik garatzen.

Hilabete hauetan hiriko haurrentzako Udaletik egiten den eskaintzaren azterketa da aurten egin nahi duguna. Hortik abiatuta, eskaintza osatzeko edota moldatzeko beharra egon daitekeen baloratzeko. Euskara Zerbitzutik eta Donostia Kirolak.etik egiten den eskaintza jasotzea da aurtengo asmoa. Eta bi udal sail hauen balorazioak jaso.

EGUTEGIA:

Martxoan hasi eta abenduan amaituko da.

Adierazlea	Estandarra
Haurrentzako Euskara Zerbitzutik eta Donostia Kirolaketik egiten dena jaso	Egina



3.2. **NERABEENTZAKO ATALA INDARTZEA**

3.2.2. **Gaztelekuen proiektuaren zehaztasunak erredaktatu**

3.2.2.1. **Gaztelekuen definizioa, araudia eta zerbitzuen katalogoaren zehaztapenak**

Arduraduna: Itziar Bilbao

HELBURUA:

Gaztelekuak udal zerbitzu publikoak diren heinean, bai administrazioak berak eta baita herritarrek ere beraien eskubideak eta betebeharrak zeintzuk diren jakin behar dute.

Donostiako udal Gaztelekuen funtzionamendua, araudia eta zein zerbitzu eskainiko diren zehaztuko duen arautegia definitzea du helburu.

NOLA GARATUKO DA:

Haurtxokoen eta Gaztelekuen araudia eta zerbitzuen katalogoak erredaktatuko dira. Beraz, Haurren Ataleko arduraduna eta Nerabeen Ataleko arduraduna izango dira honen lidergoa eramango dutenak, beti ere Haurtxoko eta Gaztelekuen sareko 3 koordinatzaileekin koordinatuta. Lan taldean garatuko den ekintza da.

1. Gazteleku bakoitzaren funtzionamendua jasoko da.
2. Funtzionamenduan antolaketa komuna identifikatu eta jasoko da.
3. Gazteleku bakoitzean eskaintzen diren zerbitzuak jasoko dira (programak eta zerbitzuak).
4. Jasotako guztiarekin araudi zirriborro bat egingo da.
5. DKrekin kontrastatuko da eta beraien eta gure araudien arteko kontraesanak ekiditen saiatuko gara.
6. Dena aztertu ondoren, araudia idatziko da.
7. Zerbitzuen katalogoa idatziko da.

EGUTEGIA:

Martxoaren 1etik irailaren 10era.

Zirriborroarekin lanean hasi, udara aldera DKrekin adostasuna landu eta hurrengo ikasturte hasierarako indarrean egoten edo martxan jartzen saiatu.

Adierazlea	Estandarra
Araudia eta zerbitzuen katalogoa argitaratu	Egina Irailerako

3.2. NERABEENTZAKO ATALA INDARTZEA**3.2.3. Gaztelekuen sarea osatu. Auzo berrietara zabaldu****3.2.3.1. Larratxo auzoan Gaztelekua zabaltzeko proposamena garatu, irekiera prozesua
Arduraduna: Itziar Bilbao****HELBURUA:**

Altza- Larratxo auzoan, orain arte ez dagoen, Udal Gaztelekua zabaltzea.

NOLA GARATUKO DA:

Lokalaren obra proiektua aurrera eraman behar duen Proiektu eta Obretako sailarekin koordinazioan, espazioaren diseinua zehaztuko da, Gazteleku batek dituen behar eta ezaugarrietara egokituz. Behin espazioaren obra egina dagoela, espazioa egokitu eta prestatuko da (altzariak, fondo ludikoa, ekintzetarako materiala,...).

Barne espazioa atontzeaz gain, kanpoko espazioan ere esku hartzeko asmoa dugu. Belargune bat dago bi espazioen kanpoaldean eta hau proiektuarekin lotu nahi dugu, kanpoko espazio hori gureganatuz eta jokorako espazio bihurtu (baratza, negutegi, zabu.. jarri). Barnealdea eta kanpoaldea erabat loturik. Sare osoan mota honetako lehenengo esperientzia litzateke.

Horretaz gain, zerbitzuaren inguruko alderdiak zehaztuko dira (pertsonek hezitzaileak, egutegia, programazioa,...) eta irekierari begira komunikazio eta difusio kanpaina martxan jarriko dira.

Ekintza hau lan taldean garatuko da, haurren ataleko arduradunaren eta nerabeen ataleko arduradunaren artean.

EGUTEGIA:

2016ko azaroa- 2017ko maiatza: Obra proiektuaren diseinua.

2017ko ekaina: Obra proiektuaren lizitazioa.

2017ko uztaila- urria: Obraren exekuzioa.

2017ko iraila-abendua: Kanpoko espazioaren esku hartze proiektua

2017ko azaroa- abendua: Lokalen prestakuntza.

2017ko azaroa-abendua: Haurtxoko eta Gaztelekuak kudeatzen dituen enpresaren kontratua handitzea.

2017ko abendua: Irekieraren komunikazioa eta zerbitzuaren difusioa.

2017ko Gabonak: Gaztelekuaren irekiera.

Adierazlea	Estandarra
Gabonetarako Larratxoko eskaintza irekia egotea	Egina

3.2. **NERABEENTZAKO ATALA INDARTZEA**

3.2.4. **Gaztelekuen etengabeko egokitzapena, hobekuntza sustatu**

3.2.4.4. **Gazteleketan Instantlean proiektua landu**

Arduraduna: Itziar Bilbao

HELBURUA:

Egitasmoaren helburu nagusia, nerabeek teknologiaren erabilerari dagozkion portaera eta jarrera egokiak barneratzea da, interneten ondo nola jokatu ikasi, eta sarean beraien eskubideak eta betebeharrak zein diren argitzea.

Bigarren maila batean; honako helburu hauek ere izango ditu proiektuak:

- Nerabeekin batera iritzi kritikoa eta eztabaida-prozesuak sustatzea.
- Nerabeen artean teknologiaren erabilera egoki eta parte hartze positiboa sustatzea.
- Zerbitzuetan lantzen diren proiektuak eta balioak ezagutzera ematea.
- Nerabeen irudi positiboa sustatzea.

NOLA GARATUKO DA:

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duen proiektu honetan, Donostian, bi maila desberdinetako parte hartzea egingo da: Gipuzkoa mailako lehiaketa eta Donostia mailako lehiaketak.

Nerabeen artean, Gipuzkoa mailako lehiaketarako parte hartzea sustatzeaz gain, Donostiako Gazteleku bakoitzean, honako lanketa ere egingo da:

- Tailerrak: teknologia berriek eta sare sozialek nerabeengan sor ditzaketen arrisku egoerak ulertu eta hauei nola aurre egin ikastea izango da hauen helburua. Tailerrak, Grooming-aren arriskuak, identitate digitala, argazkiak etiketatzea bezalako gaien ingurukoak izango dira besteak beste.
- Saio tekniko bat egingo da, Instagram-en erabilera, app bateragarriak, etab. lantzeko gazteekin.
- Bestelako ekintza paralekoak; argazki rallyak, photocall-ak, sare sozialen erabilera egokia egiten duen eta nerabeentzat erreferentea izan daitekeen pertsonai ezagun baten bisita,...

Lehiaketa orokorrak izango duen Gipuzkoa mailako saries gain, Donostiako Gazteleku bakoitzak bere lehiaketa propioa eta ondorengo sari banaketa izango du, Gazteleku mailako lehiaketen bitartez, Gipuzkoa mailako lehiaketa sustatu eta proiektuari gertutasuna emateko asmoz.

EGUTEGIA:

Plangintza eta diseinua: Urtarrila- otsaila.

Lehiaketa: martxoak 1etik maiatzak 7ra bitartean.

Gipuzkoa mailako lehiaketa:

Maiatzaren 10: hautatutako 10 irudiak jakinaraziko dira.

Maiatzaren 19ra arte: 10 horien artean botoa eta atsegiteak emateko aukera.

Maiatza bukaeran: Epaimahaia elkartuko da eta argazki saridunak jakinaraziko dira.

Ekainak 3: sari banaketa.



Donostia mailako lehiaketak (Gazteleku bakoitzean):

Maiatzaren 9tik 11ra: Epaimahaia elkartuko da eta Gazteleku bakoitzeko argazki finalisten aukeraketa egingo da.

Maiatzak 12: Gazteleku bakoitzeko hautatutako 10 irudiak jakinaraziko dira.

Maiatzaren 20ra arte: 10 horien artean botoa eta atsegiteak emateko aukera.

Maiatza 23- 25 bitartean: Argazki saridunak jakinaraziko dira.

Maiatzak 26tik ekainak 2a bitartean: Sari banaketak Gazteleku bakoitzean.

Ekaina: Egitasmoaren eta emaitzen ebaluazioa.

Adierazlea	Estandarra
Gaztelekuetako parte hartzaile kopurua	100 gutxienez
Gaztelekuetako parte hartzaileen argazkiak egokiak izatea	%80
Hezitzaileen balorazioak	Egitea
Nerabeen balorazioak	Egitea

3.2. NERABEENTZAKO ATALA INDARTZEA

3.2.6. Nerabeei zuzenduriko aisialdiko eskaintza indartu

3.2.6.4. Nerabeentzako dagoen eskaintzaren azterketa/irakurketa egin eta itun posibleak aztertzea, nerabeentzako aisialdiko eskaintza osatze aldera. Tabakalerarekin elkarlana, ElkarEkin proiektuaren baitan.

Arduraduna: Itziar Bilbao

HELBURUA:

Gaztematikaren ikasturte honetako inplementazio planeko ekintza baten harira, lantalde bat osatu da (GFA, Irungo Udala eta Donostiako Udala), Tabakalerarekin elkarlana abian jartzeko asmoz. Elkarlan hau, Tabakalerako hezkuntza taldeak duen epe ertaineko ElkarEkin proiektuaren baitan garatuko da.

Donostiako udalaren helburuak ekintza honekin izango dira:

- Hiri mailako nerabeen aisialdirako eskaintza areagotzea.
- Tabakalerarekin elkarlana abiatzea.

NOLA GARATUKO DA:

Nerabeen aisialdi eskaintzari lotuta, Tabakalera eta Irungo Udalarekin elkarlanean, proiektu bat aurrera eramango da. Esperientzia honen bitartez, elkarlana abiatu nahi da eta aldi berean, Gaztelekueetatik kanpo, nerabeen interesekoa den kultur diziplina bati lotutako eskaintza bat aurrera eramatea.

EGUTEGIA:

- Urtarrila: Egitasmoaren oinarrien finkatzea.
- Otsaila: Egitasmoaren nondik norakoak zehaztu, kronograma finkatu eta ardurak banatu.
- Martxo: Egitasmoaren xehetasunak zehaztu.
- Apirila: Ekintzaren difusioa egin.
- Apirilak 28 eta maiatzak, 12 eta 26: Ekintzak aurrera eraman.
- Ekaina: Egitasmoaren ebaluazioa egin.

Adierazlea	Estandarra
Ekintza aurrera eraman da	Egina
Parte hartzea	Taldeak osatu dira
Gaztelekueetako erabiltzaileak ez diren nerabeek parte hartu dute	%70
Elkarlanaren balorazioa	Elkarlanean jarraitzeko prest

3.2. NERABEENTZAKO ATALA INDARTZEA

3.2.7. Nerabeen autonomia sustatu

3.2.7.1. Gazte Lokalen inguruko esku hartzea: informazio eta orientazio lanak, gazte lokalen mahaiaren kudeaketa eta diru laguntzen tramitazioa

Arduraduna: Itziar Bilbao

HELBURUA:

Informazio eta orientazio lanak: Gazteen lokalen gidan oinarrituta, lokalek bete beharreko baldintzen, diru laguntzaren, bizikidetzeta eta erabilera onaren inguruko euskarri arin bat sortzea.

Gizarte Ekintzak duen informazio eta hezkuntza programan oinarrituta, zerbitzu honetan gazteen lokalen ordenantzaren eta tramiteak aurrera eramateko diru laguntzaren informazio eta orientazio lanak Gazteriatik txertatzeko modua aztertu.

Gazte lokalen mahaiaren kudeaketa: Mahai honen bitartez, Udal mailan gai honen inguruko koordinazio eta sailen arteko informazio trukaketa bideratzea.

Diru laguntzak: Diru laguntza eskaera gehiago jasotzea.

NOLA GARATUKO DA:

Informazio eta orientazio lanak:

- Lokalen inguruko euskarri arin bat sortu (Arteman). Euskarri hori, Gizarte Ekintzari eta Udaltzaingoari eman, beraiek gerturatzen direnean banatzeko.
- Gaztelekuetako hezitzaileei, gazteen lokalen ordenantza eta diru laguntzaren inguruko oinarritzko informazioa eta sortutako euskarria, beraiek ere gai honen inguruan gazteen erreferente izan daitezten.
- 2018ra begira, Gizarte Ekintzarekin batera, gazteak biltzen diren lokaletako informazio eta hezkuntza programari lotutako elkarlana zehaztu. Zerbitzu honek Gazteriarako izango lukeen kostea zehaztu eta 2018rako aurrekontuetan kontutan izan.

Gazte lokalen mahaiaren kudeaketa:

- 2/3 bilera urtean.
- Hurrengo bilera apirilaren amaieran.

Diru laguntzak:

- Komunikazio kanpaina bat egin diru laguntzen inguruan.
- Martxoan zehar diru laguntza deialdia atera eta abenduan diru laguntzak ebatzi.

Adierazlea	Estandarra
Gazte Lokalen inguruko euskarria sortzea	Egina
2018ra begira, informazio eta hezkuntza programarako oinarriak ezartzea	Egina
Udal mailako koordinazio mahaia biltzea	Gutxienez 2 edo 3 bilera
Diru laguntzen eskaera kopurua	8



3.3. GAZTEENTZAKO ATALA INDARTZEA

3.3.1. Kontadores Gazte Zentroa kudeatu

3.3.1.1. Kudeaketarako pleguen garapena

Arduraduna: Leire Orella

HELBURUA:

Kontadores Gazte Zentroaren kudeaketarako behar bezala egokitutako oinarri teknikoak idaztea eta argitaratzea lortu nahi da. Espazioarekin eta haren proiektuarekin bat egingo duten oinarriak lantzea da helburua, hala nola, lan taldea osatuko duten pertsona kopurua eta hauen profila zehatz-mehatz definitzea.

NOLA GARATUKO DA:

Azken lehiaketako oinarriak eta Kontadores.eko azken urteetako ibilbidea aztertuko dira. Bateratasunak eta kontraesanak identifikatuz. Hobekuntzak planteatuko dira eta hauen bideragarritasuna neurtuko da. Gaur egun zentroa kudeatzen duen enpresarekin (Artaziak), hobekuntza proposamenak landuko dira. Ondoren guztiaren bideragarritasuna udal kontratazioa sailarekin aztertuko da. Haurtxokoen eta Gaztelekuen kudeaketa oinarrien lanketa prozesuarekin koordinatuko da, aurrekontuari eta epeei dagokionean.

EGUTEGIA:

Ekintza 2017ko otsaila eta abendua bitartean garatuko da.

Adierazlea	Estandarra
ARTAZIAK enpresarekin kontraste bilerak egin	2 bilera
Udal kontratazio sailarekin kontrastea egin	Bilera 1
Oinarrien lehen zirriborroa idatzi	Abendurako egina

**3.3. GAZTEENTZAKO ATALA INDARTZEA****3.3.3. Kontadoreseko etengabeko egokitzapena, hobekuntza sustatu****3.3.3.1. Instalazioan hobekuntzak gauzatu: aparteko sarrera, señaletika, harrera espazioa/topagunea, materialaren berritzea****Arduraduna: Leire Orella****HELBURUA:**

Zentroaren ikusgarritasuna areagotzea eta beharretara egokitutako eraikina bihurtzea.

NOLA GARATUKO DA:

Eraikinen mantentze udal sailarekin adostu da elektrizitate arloko hobekuntzak egiteko aurrekontuak eskuratzea. Gazteriatik egingo dena: kanpo aldeko totemaren argiztapena, mapa elektrikoa egitea eta areto nagusian hartudun trifasiko independente bat jartzea. Aurrekontuaren eta lehentasunen arabera, ahal diren hobekuntzak egingo dira. Proiektu eta Obren udal sailari eskatuko zaio Kontadoreseko sarreraren moldaketen proiektua eguneratzea, zentroak behar duen topagune hori sortzeko. Aurrekontuaren eta lehentasunen arabera, ahal diren hobekuntzak egingo dira.

EGUTEGIA:

Ekintza 2017ko otsaila eta abendua bitartean garatuko da.

Adierazlea	Estandarra
Hobekuntzak	Eginak egotea urte amaierarako



3.3. GAZTEENTZAKO ATALA INDARTZEA

3.3.4. Txantxarrekarekin elkarlana zehaztu

3.3.4.1. 2017ko urrirarteko elkarlana zehaztu

Arduraduna: Leire Orella

HELBURUA:

Txantxarreka eta Gazteriaren arteko harremana eta funtzionamendua eraginkorragoak izatea lortu.

NOLA GARATUKO DA:

Txantxarrekako solaskideekin batera adostuko dira koordinaziorako prozedurak.

Egunean dagoen hitzarmenari ekarpenak egingo dizkiote, ekarpenen balorazioa egingo da eta sinadura gauzatuko den edo ez erabakiko da.

Bestalde, Txantxarrekako programazioaren hedapenerako erabiliko diren kanalak ere adostuko dira.

EGUTEGIA:

Ekintza 2017ko otsaila eta urria bitartean garatuko da.

Adierazlea	Estandarra
Elkarlanaren helburuak adostu	Egina
Koordinazio bilerak egin	Hilabetean behin
Elkarlanaren balorazioa	Egitea

**3.3. GAZTEENTZAKO ATALA INDARTZEA****3.3.5. Gazteentzako espazio ereduak aztertu eta Gazteriaren erantzukizuna, rola definitu****3.3.5.1. Espazioak identifikatu eta harremana ahalbidetu****Arduraduna: Leire Orella****HELBURUA:**

Gazteriaren rola eta zeregina zehaztea gazteentzako espazio eta kultura-aisialdi eredu ezberdinen aurrean.

NOLA GARATUKO DA:

Hirian egon daitezkeen gazteentzako espazio ezberdinen zerrenda bat gauzatuko da gaur egun dugun ezagutza mailatik. Horietatik, Gazteriarekin dagoeneko harremana duten horrekin (horiekin) lehen gerturatze bat egingo da eta bata bestearen berri emango da, sortu daitezkeen harreman mota zehaztuko da ere. Elkarlanean aritzeko aukerak aztertuko dira eta proiektu komun bat gauzatzen saiatuko gara.

EGUTEGIA:

2017ko martxoa eta abendua bitartean.

Adierazlea	Estandarra
Espazioen zerrenda osatu	Egina
Harremana sortu	Espazio batekin. Guardetxerekin

**3.3. GAZTEENTZAKO ATALA INDARTZEA**

3.3.6. Gazteen sormena eta berrikuntza sustatu / gazteak hiriko eragile aktibo eta sortzaile diren heinean, babesa eta laguntza eskaini

3.3.6.2. Eszena amateurraren sustapena (arte disziplina ezberdinen sustapena): koordinazio mahaia sortu, mikroantzerkia, DJ erakustaldia, lankidetzak eragile ezberdinekin
Arduraduna: Leire Orella

HELBURUA:

Gazteek duten ahalmen sortzailea bultzatzea eta egiaztatzea.

NOLA GARATUKO DA:

Udal barruan gazteen sorkuntza prozesuak bultzatzen diren ekimenak identifikatuko dira eta elkarlanerako bateratasun posibleak zehaztuko dira. Diziplina artistiko ezberdinak lantzen dituzten hiriko eragileak identifikatuko dira eta elkarrekin aurrera burutu daitezkeen proposamenak landuko dira. Aurreko urteetan sortutako ekimenei jarraikortasuna emango zaie, berrikuntzak eta hobekuntzak barneratuz. Kontadores izango da ekimen hauen guztien eszenatoki eta bultzatzaile nagusia.

EGUTEGIA:

2017ko apirila eta abendua bitartean.

Adierazlea	Estandarra
Koordinazio mahaia sortu	Bilera 1 egitea
Gauzatu diren ekimenen balorazioa	Egitea
Parte hartu duten eragileen balorazioa	Egitea

3.3. GAZTEENTZAKO ATALA INDARTZEA**3.3.7. Nazioarteko mugikortasuna sustatu****3.3.7.1. Gaztematikako Erasmus+ lan taldean 18 urtetik goragokoentzako elkartrukea proposatu eta gauzatu****Arduraduna: Leire Orella****HELBURUA:**

Gazteen garapen pertsonalerako onuragarria izan daitekeen nazioarteko mugikortasuna sustatzea.

NOLA GARATUKO DA:

- Elkartrukearen gaia zehaztu da udaleko Kultur Aniztasun sailarekin eta Sos Arrazakeriak elkartearekin batera: "Zurumurruek". Jatorri ezberdineko pertsonen aurrean sorturiko zurumurruek eta aurreiritziak landuko dira.
- Aldundiko Komunikazio Bulegoarekin elkartruke proposamena partekatuko da, eta oniritzia jaso ondoren jarraitu beharreko pausuak zehaztuko dira.
- Teneriferekin harremanetan jarriko gara, haiek aurreko urtean *Zurumurruek* inguruan egindako elkartrukearen inguruko informazioa eskuratzeko eta haien esperientzia gertutik ezagutzeko. Haiekin parte hartu zuten herrialde ezberdinei buruz informazioa bereganatuko da eta gure elkartrukeerako kide aproposak izan daitezkeen neurtuko da.
- Elkartrukea zeinekin eta non egingo den zehaztuko da. Partaideak zehaztu eta Donostian egiteaz gain atzerriko beste herrialderen batean egingo den erabaki behar da.

EGUTEGIA:

Martxoan *Sos Arrazakeriaren* lehen proposamena jasoko dugu eta horren gainean lan egingo da. Hilabete horren amaieran elkartruke osoaren lehen zirriborroa idatziko da. Zirriborro hori Aldundiko Komunikazio Bulegoarekin kontrastatu eta diru laguntza eskaera orria bete eta bidali beharko da apirilaren 26a baino lehen.

Adierazlea	Estandarra
Europara diru laguntza eskatu	Apirilak 26
Elkartrukea gauzatu	Gutxienez Donostian

**3.3. GAZTEENTZAKO ATALA INDARTZEA****3.3.9. Gazteen parte hartzea sustatu****3.3.9.1. Loadinn-ekin lankidetzaz hitzarmena sinatu, gazteen parte hartzea sustatze aldera.****Arduraduna: Leire Orella****HELBURUA:**

Gazteria zerbitzua bera gazteetara hurbiltzea eta modu berean gazteek udala eskuragarri sentitu araztea.

NOLA GARATUKO DA:

LOADINN¹ enpresarekin egitasmoa zehazteko, helburuak bateratzeko eta jarraitu beharreko pausuak definitzeko hainbat bilera egingo dira, dokumentu bateratu batera iritsi arte. LOADINN enpresak gazte talde eta norbanako ezberdinak identifikatuko ditu eta hauekin lan saio ezberdinak eramango dira aurrera. Gazteek izango dute protagonismoa eta haiek buruan dituzten ideiak eta iniziatibak landuko dira udal teknikariekin batera ere. LOADINNek bitartekaritza lanak eta zubi lanak egingo ditu, udala eta gazteen arteko gertutasun hori bilatuz.

EGUTEGIA:

Martxoa eta Abendua bitartean gauzatuko da.

Adierazlea	Estandarra
Elkarlanaren zeregina	Adostua egotea
Egitasmoaren kronograma	Zehaztua
Loadinn-ekin hitzarmena	Sinatzea
Elkarlanaren balorazioa	Egitea

¹ LOADINN: 2013an sortutako enpresa ekimen kooperatiboa da, misio gisa tokian tokiko eraldaketa sozioekonomiko baten eragile aktibo eta berritzailea izatea duena. Proiektu freskoen sorrera eta pertsonak oinarri izanik, berrikuntza, inpaktu positiboa eta etengabeko saretzea sustatzen du haren inguruan

3.4. HAURRAK, NERABEAK ETA GAZTEAK SUSTATZEKO EKIMENAK LAGUNTZEKO BIDEAK, BALIABIDEAK INDARTZEA**3.4.1. Diru laguntza konkurrenteak kudeatu****3.4.1.1. 2017ko diru laguntza konkurrenteen kudeaketa****Arduraduna: Aitor Oiarzabal****HELBURUA:**

Gazte elkarten edo taldeen giza balioak sustatu eta gazteen bizi kalitatea hobetzen dituzten programei diru laguntzak ematea.

NOLA GARATUKO DA:

Udalaren diru laguntzak gazte elkarten edo taldeen programa egonkorrak, zein haurren eta gazteen bizi baldintzak eta kalitatea nabarmen hobetzen duten proiektu zehatzak gauza ditzaten ematen dira.

Diru laguntzak banatzeko hainbat irizpide dago (deialdiaren oinarrietan jarrita daude): aurkeztu den proiektu pedagogikoa, eragina, jardueraren maiztasuna eta erregularutasuna, elkartearen edo taldearen ibilbidea eta bilakaera, auzoan edo jarduera-esparruan duen benetako garrantzia eta proiektu berritzaileenganako inplikazioa, erreferentzialtasuna eta bere ahalmen eraldatzaile eta berritzailea, udal ekipamendu eta zerbitzu gutxiago dituzten eremuetan proiektua garatzea, auzolana eta jarduera koordinatuak, berdintasun jarduerak eta euskara sustatzen dutenak.

Haurren (0-5 eta 5-11 urte), nerabeen (12-17 urte) edo/eta gazteen (18-30 urte) onura helburutzat duten proiektuak izan behar dute, edota beraien bizi baldintzak eta kalitatea nabarmen hobetzen duten proiektuak.

Aurten diru laguntzetarako izaten dugun aurrekontua nabarmen igo da, beraz honek aukera emango digu proiektuak babesteko eta sustatzeko. Baina era berean diru laguntzetarako dugun aurrekontua egokia den edo ez aztertuko da.

Bestalde, erregistro digitalean oinarritutako kudeaketa berria abian jarri da. Eta honek lan egiteko era guztiz aldatu du eta egokitze urtea izango da.

Metodologiari dagokionez, lan-taldean era koordinatu batean aurrera eramaten da, bai Gazteria Sailean barne (Gazteriako Teknikariak-Administraria), bai beste Udaleko Departamenduekin (Kontu-Hartzailetza, Partaidetza, etab...), baita kanpoko eragileekin ere.

Adierazlea	Estandarra
Jasotako proiektuen eta aurrekontuaren inguruko balorazioa	Egitea
Erregistro digitalaren balorazioa egin eta hobekuntzak proposatu	Egitea
2018ko diru laguntzen deialdirako aurrekontu aurreikuspena	Egitea



01.2.4

ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA



ERRONKA	HELBURUAK	EKINTZAK 2017
4.-ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA	4.1. Udaleko zeharkakotasun politikak sustatu	4.1.1. Berdintasun politiken sustapena
		4.1.2. Euskararen Erabileraren sustapena
		4.1.3. Kultur Aniztasuna
		4.1.4. Donostia Lagunkoia
	4.2. Sailen arteko lankidetzak sustatu, helburu zehatzetan oinarrituta / zeharkakotasunaren kultura eta dinamika sortzen joan	4.2.1. Euskara zerbitzuarekin elkarlana
		4.2.2. Berdintasun Sailarekin elkarlana
		4.2.3. Gizarte Ekintzarekin elkarlana
		4.2.4. Kultur Aniztasunarekin elkarlana
		4.2.5. Hezkuntza Sailarekin elkarlana
	4.3. Estrategikoak izan daitezkeen eragileekin koordinazioa bultzatu	4.3.1. Foru Aldundiarekin 2017ko lankidetzak hitzarmena definitu eta elkarlana planifikatu
		4.3.2. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlanean aritzeko aukerak aztertu



4. ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA

4.2. Sailen arteko lankidetza sustatu, helburu zehatzetan oinarrituta / zeharkakotasunaren kultura eta dinamika sortzen joan

Gazteria Sailaren erronka izango da, haur, nerabe eta gazteen ahotsa eta ikuspegia udal politika eta arlo ezberdinetara eramatea.

Horretarako udal sail ezberdinekin elkarlana sendotu beharko da, helburu zehatzetan oinarrituta, haurren, nerabeen eta gazteen beharrak aintzat hartuko dituzten politika integralak sortzeko helmugarekin.

Sailen arteko lankidetza garatzea zaila da. Zailtasun horiek gainditzeko, proiektu zehatzen inguruan eta helburuak partekatuz lan egitea dela biderik egokiena uste dugu. Sail bakoitzarekin lankidetza ildo zehatzak zehatzen saiatuko gara:

- Euskara Zerbitzuarekin elkarlana
- Berdintasun Sailarekin elkarlana
- Gizarte Ekintzarekin elkarlana
- Kultur Aniztasunarekin elkarlana
- Hezkuntza Sailarekin elkarlana



4. ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA

4.2.1. Euskara Zerbitzuarekin elkarlana

Arduraduna: Miren Mancisidor

HELBURUA:

Gazteria Sailean eta bereziki haur, nerabe eta gazteengan euskararen erabilera sustatzeko, Euskara Zerbitzuarekin elkarlana definitzea izango da ekintza honen helburua.

NOLA GARATUKO DA:

Euskara Zerbitzua eta Gazteria Sailaren artean, interesguneak, erronkak konpartitzea izango da lehen pausoa, ondoren elkarlanerako ildoak markatu ahal izateko.

Elkarlanean landuko ditugun egitasmoetako bi honakoak dira:

1.- Gaztematikatik, 2015-2016 ikasturtean, "Ebate hizkuntza-zerbitzuak" entitatearekin batera, hezitzaileentzako eta teknikarientzako gidak prestatu ziren zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzeko asmoz.

Aurten lan praktikoari heldu zaio. Hezitzaileentzako eta teknikarientzako prestakuntza-saioak eskainiko dira zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzeko. Horretarako, pasa den urtean sortutako gidak / materiala izango dira oinarria. Prestakuntza-saioetan udaleko euskara-teknikariek parte hartzeko aukera izango dute.

2.- Izarrak Plazara ekimena.

Izarrak Plazara 5-17 urte bitarteko haur eta nerabeei zuzendutako ekimena da, artistak bilatzeko ekimena, eta beraz, musika tresnak jotzea, kantatzea, dantzatzea, antzerkia egitea, txisteak kontatzea, bertsoak kantatzea, magia egitea, zirku ikuskizunak eskaintzea... gogoko dutenek hementxe dute aukera. Helburu nagusia haurren eta nerabeen sormen artistikoa sustatzea da, eta aldi berean, elkarrekin euskaraz ongi pasatzea.

Programa bi kategoriatan banatuko da, adinaren arabera: 5-11 urte bitartekoak eta 12-17 urte bitartekoak.

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, Donostia Kulturak, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Donostiako Udaleko Gazteria Sailak sustatzen dute ekimena, eta emanaldi nagusiak Olatu Talka jaialdiaren baitan egingo dira.

3.- Euskara Zerbitzuak udan eskaintzen dituen udalekuen azterketa egin.

Hilabete hauetan hiriko haurrentzako Euskara Zerbitzutik egiten duten eskaintzaren azterketa da aurten egin nahi duguna. Eta Euskaratik egiten duten balorazioa jaso. Hortik abiatuta, eskaintza osatzeko edota moldatzeko beharra egon daitekeen baloratzeko.

Adierazlea	Estandarra
Elkarlanaren helburuak adostea	Egina
Elkarlanerako egutegia adostea	Egina
Koordinazio bilerak	3-5
Elkarlanaren balorazioa	Elkarlanean jarraitzeko prest

4. ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA

4.2.2. Berdintasun Sailarekin elkarlana

Arduraduna: Miren Mancisidor

HELBURUA:

Genero ikuspegitik zerbitzu hobea emateko 2014-2018 denboraldian udaleko departamentu guztiek hartu beharreko neurriak jasotzen ditu Berdintasunerako III Planak.

Gure Saila, haurren, nerabeen eta gazteen sustapenerako esparrua estrategikotzat hartzen da, prebentzio eta sentsibilizazio lanetarako. Berdintasunaren sustapenak lehentasuna du Gazteria Sailaren eginkizunean.

Zentzu honetan, eta III. Berdintasunerako Plana oinarri hartuta, Berdintasun Sailarekin elkarlanean landuko ditugun gaiak / egitasmoak honakoak dira:

1.- Medicus Mundi eta Farapi-rekin batera, nerabeek eta gazteek maitasunari buruz dituzten ideien inguruko lanketa.

2014-2015 - ikerketa

EHUko Antropologia Departamentuak egindako hausnarketa baten ondorioz, Gipuzkoako gazte eta nerabeek maitasunaren bueltan dituzten ideia eta horren eraginez dituzten diskurtsoen inguruan lanketa egiteko beharra identifikatu zen. Hortaz, Medicus Mundi, EHU eta Farapi Koop. Elkarteak elkarlanean honako ikerketa burutu zuten: "Gaizki amaitzen den gauza ederra ote da maitasuna?".

2016 – hezitzaileekin hausnarketa tailerrak

Aurreko ikerketa oinarri hartuta, hortik atera ziren ondorioen bueltan lan-ildo batzuk identifikatu ziren, eta gazte eta nerabeekin lanean diharduten hezitzaileekin hausnarketa konpartitua egin zen, ondorio horiek lantzearen eta gazteekin nola aplikatzearen inguruan.

2017 - Online ematen diren ohitura, ideia eta baloreen inguruko lanketa

Une honetan proposatzen dena da on-line munduan sakontzea. Berrikuntza moduan, Gipuzkoan eta Perun egingo da 2017an.

-Lan dokumentala: on-line munduaren inguruan ezagutza sakontzea.

-Landa lana: gazte eta nerabeen bizipenak, ideiak eta erabilerak ezagutu nahi dira honen bitartez. Gaztelekuetako hezitzaileekin elkarlanean aritzea proposatzen da.

Gaztelekuetako hezitzaileek formazioa jasoko dute, nerabeen arteko harremanetan kontuan hartu beharreko hainbat irizpideren inguruan eta ondoren, Gaztelekuetan bertan, irizpide, egoera edota harreman hauen jarraipena eta azterketa egingo dute.

Sare sozialen eta teknologia berrien eragina aztertuko da nerabeen arteko maitasun harreman horietan.



2.- Gure Txoko programaren implementatzea Udal Haurtxoko eta Gazteleketan.

Donostiako Udalaren Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako III. Planaren helburuetako bat, Gazteleku eta Haurtxokoetan genero ikuspegia txertatzea da, bertako erabiltzaileek heziketa ez sexista jasotzea, ohiko rol eta estereotipoetaz gain. Hau espazioaren egituraketa, jolas ez sexista eta parte hartze parekidean oinarritu behar da. Indarkeria matxistaren prebentzio eta gizarte eraldaketarako ezinbestean landu beharreko guneak dira gazteleku eta haurtxokoak; hezkidetzak programak sustatu, hezitzaileekin zuzeneko lanketak eginez eta gazteen jabeak indartuz. Horregatik, III Planaren exekuzioan erantzukizun konpartitua dugulako eta lanaren efizientzia bermatzeko Berdintasun Bulegoak eta Gazteria Arloak, elkarlanean sustatu eta adostu zuten aurreko ikasturtean aurrera eramatea "Gure Txoko" programa.

2016an, mekanismo ezberdinen bitartez Gazteleku eta Haurtxokoetako espazioak, baliabideak, erabilerak eta jarrerak aztertu ziren, ostean hauek eraldatzeko lerro nagusi batzuk adosteko.

Modu parte hartzailean espazio eta hornidura hauen izaera barneratzailea neurtu eta zuzentzea izango zen prozesuaren xedea. Eta fase ezberdinetan antolatu ziren ekintzak, egitekoak eta mugarrak:

- 1.- EREIN, Diagnosirako landa azterketa egin.
- 2.- ONGARRITU, Diagnostika berretsi eta eraldaketarako oinarriak jarri.
- 3.- BILDU, Eraldaketarako lerroak zehaztu.

2017an, identifikatutako eraldaketarako lerroak oinarri hartuta, ekintza plan bat diseinatu zen 2017 eta 2018 urteetan garatzen joateko. Beraz 2017an neurri horien egokitzea eta implementatzearekin hasiko gara.

3.- Beldur Barik programaren inguruko hausnarketa eta programan parte hartzea.

4.- Genero ikuspegiaren formazioa, diru laguntza eskatzen duten elkarteentzako.

5.- Berdintasun Planaren koordinazio eta jarraipen Batzorde Teknikoan parte hartzea

6.- Hezkidetzaren inguruan sentsibilizatzeko ekimenak: Gabonak Zuretzat programaren baitan, haurrei eta hauen guraso edota arduradunei zuzenduriko ikuskizunen bat antolatzea.

Adierazlea	Estandarra
Berdintasun Sailarekin lankidetzaren helburuak adostu	Egina
Lankidetzarako egutegia adostu	Egina
Koordinazio bilerak	6-8
Batzorde teknikoko bileretan parte hartzea	2-3
Partida morearen gastua	Aurrekontua gastatzea
Lankidetzaren inguruko balorazioa	Elkarlanean jarraitzeko prest

**4. ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA****4.2.3. Gizarte Ekintzarekin elkarlana****Arduraduna: Miren Mancisidor****HELBURUA:**

Gizarte Ekintza eta Gazteria Sailaren arteko koordinazioa eta elkarlana estutzea da helburua, bereziki nerabeei eragiten dieten gaien inguruan eta 0-5 adin tarteko haurrentzako eta familientzako eskaintzaren inguruan. Bi sailek egiten dutenaren inguruko elkar ezagutza areagotu nahi da eta baita elkarlanerako bideak aztertu ere.

NOLA GARATUKO DA:

Gizarte Ekintza eta Gazteria Sailaren artean, interesguneak, erronkak konpartitzea izango da lehen pausoa, ondoren elkarlanerako ildoak markatu ahal izateko.

Elkarlanean landuko ditugun egitasmoetako bi honakoak dira:

1.- Nerabeen autonomia eta segurtasunaren inguruan: Gazte lokalak, adikzio plana

2.- 0-5 adin tartea: Bi sailen artean, adin tarte honekiko ditugun beharrak, asmoak, kezkek, etab. konpartitzea izango da asmoa.

Adierazlea	Estandarra
2017rako elkarlana adostu	Egina
Koordinazio bilerak	Gutxienez 3
Ekintza zehatzen inguruan koordinatu	Egina
Elkarlanaren balorazioa	Elkarlanarekin jarraitzeko prest egotea
2018rako elkarlana zehaztu	Egina

**4. ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA****4.2.4. Kultur Aniztasunarekin elkarlana****Arduraduna: Miren Mancisidor****HELBURUA:**

Kultur Aniztasuna eta Gazteria Sailaren arteko koordinazioa eta elkarlana estutzea da helburua, kultur arteko hezkuntza lantzeko eta sustatzeko asmoarekin.

Bi sailek egiten dutenaren inguruko elkar ezagutza areagotu nahi da eta baita elkarlanerako bideak aztertu ere.

NOLA GARATUKO DA:

Kultur Aniztasuna eta Gazteria Sailaren artean, interesguneak, erronkak konpartitzea izango da lehen pausoa, ondoren elkarlanerako ildoak markatu ahal izateko.

Elkarlanean landu ahal izango ditugun egitasmoetako bi honakoak dira:

1.- Ongi Etorri Proiektua**2.- 18 urtetik gorakoentzako elkartrukearen diseinua eta gauzatzea.**

Jatorri ezberdineko pertsonen aurrean sortzen diren zurrumurruek eta aurreiritziak izango da elkartrukean landuko den gaia.

Adierazlea	Estandarra
2017rako elkarlana adostu	Egina
Koordinazio bilerak	Gutxienez 3
Elkarlanaren balorazioa	Elkarlanarekin jarraitzeko prest egotea

**4. ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA****4.2.5. Hezkuntza Sailarekin elkarlana****Arduraduna: Miren Mancisidor****HELBURUA:**

Hezkuntza Saila eta Gazteria Sailaren arteko koordinazioa eta elkarlana estutzea da helburua, bereziki haurren parte hartzearen lan ildo oinarritzat hartuta.

Bi sailek egiten dutenaren inguruko elkar ezagutza areagotu nahi da eta baita elkarlanerako bideak aztertu ere.

NOLA GARATUKO DA:

Hezkuntza Saila eta Gazteria Sailaren artean, interesguneak, erronkak konpartitzea izango da lehen pausoa, ondoren elkarlanerako ildoak markatu ahal izateko.

Elkarlanean landu ahal izango ditugun egitasmoetako bi honakoak dira:

1.- "Haurren partaidetza prozesuak garatzen laguntzeko" Gaztematikako lan taldean lantzen duguna konpartitu eta kontrastatzea.

2.- Donostiako Udaleko parte hartze prozesu ezberdinen inguruko azterketa:

- Eskola Bidea
- Hip Hip Urri

Adierazlea	Estandarra
2017rako elkarlana adostu	Egina
Koordinazio bilerak	Gutxienez 3
Elkarlanaren balorazioa	Elkarlanarekin jarraitzeko prest egotea

4. ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA

4.3. Estrategikoak izan daitezkeen eragileekin koordinazioa bultzatu

4.3.2. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlanean aritzeko aukerak aztertu Arduraduna: Miren Mancisidor

HELBURUA:

Estrategikoak diren eragileekin koordinazioa bultzatzeko helburuan oinarrituta, EGKrekin harremanak estutzeko asmoa dugu.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) gazteriarekin lotura duten gaiak lantzen dituen erakunde autonomoa da. 60 bat elkarteren topagune bezala funtzionatzen du.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) eginkizuna, gazteen iritzi, proposamen, ideia eta beharrak biltzea da, ondoren EAEko erakunde publikoei helarazi eta gazteria murgiltzen duten plan edo proiektuetan eragina izateko. EGKren beste funtzio garrantzitsuenetako bat kontraste lana da, hain zuzen ere erakundeetan diseinatzen diren aipatutako politika publiko horiek gazteek bizi dituzten egoerei erantzuten dietela bermatzeko.

Helburua lortzeko asmoz, hainbat proiektu burutzen dituzte, topaketak antolatu eta hainbat lantalde sortu EGK osatzen duten lar-arloetan: Enplegu eta Etxebizitza, Hezkuntza formala edo ez formala, Parte-hartzea, Berdintasuna, Bakea eta Bizikidetzeta eta Komunikazioa. Dinamika hauetan edozein pertsona gaztek parte har dezake, kontseiluko erakunde bateko kide izan ala ez. Honela, lortutako informazio guztia aztertu eta antolatu egiten da asoziazio, hedabide, erakunde eta gizarteari modu dinamikoan (mahai-jokoak, bideoak, txostenak edo grafiko interaktiboak) aurkezteko.

2017rako honako egitasmoak zehaztu ditugu elkarlanean garatzeko:

1.- European Youth Consensus - Aarhus

Aarhus-en antolatuko den gazte topaketa honetarako, EGK-rekin elkarlanean ariko gara. Danimarkan parte hartuko duten gazteek prestakuntza prozesu bat burutu beharko dute Topaketa baino lehen eta gazte talde honen prestakuntzaz eta dinamizazioaz EGK arduratuko da.

EGKren bidez ere gazte hauekin batera joango den koordinatzailea aukeratuko dugu; hau astialdi foroaren bidez egingo da.

2017ko udaberritik aurrera, EGK 8 gazteekin eta koordinatzailearekin lanean ariko da, taldea sortzen eta dinamizatzen, Aarhus hirian landuko dituzten gaiak aztertzen eta prestatzen eta sarean sortuko diren ekimenen eta harremanen jarraipena egiten, besteak beste.

2.- Wiesbadeneko gazte elkartrukea: Street Art Gathering Project 2017

EGKren bidez, elkartruke honetan parte hartuko duten gazteekin joango den koordinatzailea aukeratuko dugu; hau astialdi foroaren bidez egingo da.

3.- Gazteen parte hartzearen sustapena

Gazteen parte hartzea sustatzeko helburu horrekin, EGK-k gazteriaren eta administrazio publikoen artean zubi



lanak egiten ditu Parte-hartze arlotik. Arlo honetatik planteatzen dituzten ekimenen bitartez parte-hartzea modu praktikoan sustatzeaz gain, gazteriaren parte-hartzearen errealitatea jaso, horren inguruko hausnarketa egin eta hobekuntzak proposatzen dituzte.

Zentzu honetan, aztertu beharko da gazteen parte hartzearen sustapenean elkarlanean aritzeko egitasmo zehatzik garatzeko aukerarik badagoen.

4.- Berdintasunaren arloan.

Emakume eta gizonen arteko eskubide eta askatasun berdintasuna eta LGTBI+ kolektiboaren eskubide eta askatasunaren defentsan. Gazteria Saila, Udaleko Berdintasun Saila eta EGKko Berdintasun Arloa elkarlanean.

- Gune Anitza Zigilua.

- Indarkeria matxistaren aurkako kanpaina

Adierazlea	Estandarra
Elkarlanaren helburuak adostu	Egina
Lankidetzaren hitzarmena prestatu eta sinatu	Egina
Koordinazio bilerak	8
Lankidetzaren balorazioa	Elkarlanean jarraitzeko prest



01.2.5

PROFESIONALEN EZAGUTZA ETA KUALIFIKAZIOA BULTZATZEA

-



ERRONKA	HELBURUAK	EKINTZAK 2017
5.- PROFESIONALEN EZAGUTZA ETA KUALIFIKAZIOA BULTZATZEA	5.1. Profesionalak trebatu eta gaitu	5.1.1. 2017-2020rako prestakuntza plana diseinatu
		5.1.2. 2017ko prestakuntza osatu
		5.1.3. Prestakuntza beharrak eta eskaintzak jasotzeko bideak sistematizatu

**5.- PROFESIOALEN EZAGUTZA ETA KUALIFIKAZIOA BULTZATZEA****5.1. Profesionalak trebatu eta gaitu****5.1.1. 2017-2020rako prestakuntza plana diseinatu****Arduraduna: Atal burua - Gorka Goiatxe****HELBURUA:**

Udalak Pertsonen Zuzendaritzatik, urtero Prestakuntza Plan bat egin beharra ezarri da, enplegatu publikoen gaitasunak indartze aldera. Prestakuntza Planaren asmoa ez da bakarrik udal langileek eguneroko lanerako behar dituzten ezagupenak izatea; horretaz gain, Planaren funtsa da pertsonen trebetasunak areagotzea. Prestakuntza Planak, beraz, Udal Administrazioa modernizatzeko eta hobetzeko tresna izan nahi du eta, horretarako, langileen garapena bultzatuko du. Horren baitan egokitzea doa Gazteria Saila, 2017-2020 Planak dituen erronka desberdinei aurre egiteko.

Ekintza honekin lortu nahi duguna da, Gazteria Saileko teknikariek Planak eskatzen dizkien funtzioetara egokitze prestakuntza eskaintza egokia izatea.

NOLA GARATUKO DA:

Teknikarien funtzioak eta egitekoak aztertzea izango da lehen pausoa. Ondoren, funtzio horietan oinarrituta, prestakuntza beharrak identifikatu. Eta, azkenik prestakuntza plana diseinatu.

Honetarako, udal mailan eskaintzen den prestakuntza kontuan hartuko da.

Gipuzkoa mailan ere, Gaztematikatik, II Prestakuntza Plana 2016-2020 diseinatzen ari da. Ekainerako egina gongo da. Plan hau ere kontuan hartuko da.

Prestakuntza planak bi maila desberdinu jasoko ditu: administratiboa (orokorra) eta espezializazioa (Gazteria Sailari egokitua).

Administratiboa: Udal administrazioaren hobekuntzarekin erlazionatuak dauden gai zein legeen inguruko formazioa. Hala nola:

- Gardentasunaren 19/2013 Legea
- Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea
- Euskadiko Toki Erakundearen 2/2016 Legea
- Datu Pertsonalak Babesteko 2/1999 Legea
- Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen 3/2010 Errege Dekretua.
- "Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen berritasunak"

Espezializazioa: Adin tarteen arabeko formazioa

Komunikazioaren arloko formazio beharrei ere bereziki erantzun zaitzaie.

Adierazlea	Estandarra
Prestakuntza plana diseinatu	Urte amaierarako

**5.- PROFESIOALEN EZAGUTZA ETA KUALIFIKAZIOA BULTZATZEA****5.1. Profesionalak trebatu eta gaitu****5.1.2. 2017ko prestakuntza plana osatu****Arduraduna: Atal burua - Gorka Goiatxe****HELBURUA:**

2017 urterako teknikarientzako prestakuntza eskaintza garatzea da ekintza honen helburua.

Honakoa da aurreikusitako prestakuntza eskaintza:

- "Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen berritasunak" - Maiatzaren 23, 28 eta 30
- Indarkeria matxistaren prebentzioa - Beldur barik programa - Martxoaren 21a eta 28a
- Adimen emozionala jardunean: gazteekin harreman hobea izateko tresnak – Maiatzaren 2tik 4era
- Komunikazio arloan formazio basikoa

Gaztematikako eskaintza:

Intranet berria ezagutu eta erabili ahal izateko prestakuntza: 2017ko maiatzean zehar

Zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzeko prestakuntza: 2017ko urtarrilak 12 eta martxoak 30

Sare sozialen inguruko prestakuntza: 2017ko apirilaren 26an

Adierazlea	Estandarra
Planifikatutako ikastaroak egitea	%80
Ikastaro balorazioa	Egitea/ Positiboa, Eraginkorra, probetxuskoa



01.2.6

SAIL BEZALA FUNTZIONATZEKO BEHARREZKOA DEN EGITURA ETA ANTOLAKETA DEFINITU ETA ABIAN JARTZEA -



ERRONKA	HELBURUAK	EKINTZAK 2017
6.- SAIL BEZALA FUNTZIONATZEKO BEHARREZKO DEN EGITURA ETA ANTOLAKETA DEFINITU ETA ABIAN JARTZEA	6.1. Sailaren egitura, organigrama aztertu eta diseinatu	6.1.1. Antolakuntza berria abian jarri
	6.2. Sailean lan egiten dugunon arteko koordinazioa zehaztu	6.2.1. Talde lana / elkarlana / koordinazioa sistematizatu
		6.2.2. Saileko zinegotziarekin koordinazioa indartu
		6.2.3. Hezitzaileen eta teknikarien arteko lotura / harremana indartu
		6.2.4. Entitate eta enpresekiko koordinazioa egonkortu
		6.2.5. Gazteria eta Aterpetxeen arteko harremana indartu
	6.3. Urte bakoitzeko inplementazio planak diseinatu, garatu eta ebaluatu	6.3.1. 2017ko plana diseinatu, jarraitu eta ebaluatu
		6.3.2. Haur, nerabe eta gazteen balorazioak jasotzeko sistema zehaztea 2017/2018 ikasturterako
	6.4. Baliabideak eta azpiegiturak kudeatu	6.4.1. 2017ko aurrekontuaren kudeaketa, jarraipena
		6.4.2. 2018rako aurrekontuaren aurreikuspena egin
		6.4.3. Giza baliabideen kudeaketa
		6.4.4. Azpiegituren kudeaketa
		6.4.5. Etxarriene Auzo Etxearen kudeaketa

**6.- SAIL BEZALA FUNTZIONATZEKO BEHARREZKOA DEN EGITURA ETA ANTOLAKETA DEFINITU ETA ABIAN JARTZEA****6.1. Sailaren egitura, organigrama aztertu eta diseinatu****6.1.1. Antolakuntza berria abian jarri****Arduraduna: Atal burua - Gorka Goiatxe****HELBURUA:**

Berdefinizio prozesuaren ondoren sortutako antolaketa berriak, ardura banaketa berriak ekarri ditu Gazteria Saileko teknikarien artean. Ardura banaketa horietan, teknikariek orain arte izandako lan esparru desberdinetara egokitu behar dira; eginkizun berriak dituzte eta urteetan izandako besteak beste teknikariari pasa. Eginkizunen traspasea alegia.

Sailaren funtzionamendu eta egitura berria Donostiako haur, nerabe eta gazteek dituzten behar zehatzei egokitu egotearen beharra nabarmendu da. Beraz, espezializazioan oinarritutako egitura da garatu duguna eta dagoeneko abian jarri duguna.

NOLA GARATUKO DA:

Eginkizun eta ardura horiek identifikatu. Eginkizun hauen lan denboraldia urteko zein hilabeteetan garatzen diren jakin eta horren arabera traspase horren egokitzapena antolatu. Traspase bakoitzaren jarraipena, inplikaturik dauden teknikariek hila betean behin koordinazio bilera eginaz.

EGUTEGIA:

2017ko martxoan hasi eta abendu arte iraungo du.

Adierazlea	Estandarra
Antolakuntza berriaren ebaluazioa	Egitea
Asebetetze maila	Eraginkorra



6.- SAIL BEZALA FUNTZIONATZEKO BEHARREZKOA DEN EGITURA ETA ANTOLAKETA DEFINITU ETA ABIAN JARTZEA

6.2. Sailean lan egiten dugunon arteko koordinazioa zehaztu

6.2.1. Talde lana / elkarlana / koordinazioa sistematizatu

Arduraduna: Atal burua - Gorka Goiatxe

HELBURUA:

Sailaren antolaketa berriak, ardua banaketa berriak, teknikari zein atal buruaren arteko elkarlana eta ardua konpartituak sortu ditu. Honetarako ezinbestekoa da Talde-lanean aritzeko gaitasuna garatua izatea. Talde-lana landua izateak ekarriko duelako lanerako eraginkortasuna hobetzea eta eduki ditzakegun desorekak bideratu eta hobeto antolatzea.

Bestetik, Atal buruak lortu behar duen koordinazio arduren eraginkortasuna zehaztu, hobetu eta egonkortzea lortu nahi da ekintza honekin.

Garrantzitsua da azpimarratzea, espezializazioan oinarritutako ardua eta funtzio banaketa berria izan arren, Gazteria Saila osatzen dugun guztiok continuum bat osatzen dugula. Eta ez gara profesional bakoitza gure alorrean uharte bilakatu behar. Hortik, koordinazioa sistematizatzeko beharra.

NOLA GARATUKO DA:

Talde lanean trebatzeko, LKS enpresa espezializatua kontratatu da.

Formazio prozesu honek bi fase ditu:

- 1.- Antolaketa eta egonkortasuna: Hasierako banakako elkarrizketak, Taldeko 4 saio eta Coaching banakako 5 saio
- 2.- Jarraipena

Eta koordinazio sistematizatzeko, elkarren artean artikulatuak egongo diren antolaketa-unitate edota organoak definitu eta sortzea da asmoa. Horien artean, organo politikoa, organo teknikoa, organo tekniko zabaldua, adinkako lan taldeak, informazio eta komunikazioari buruzko lan taldea, zerbitzuen jarraipenerako lan taldeak, haurren/nerabeen eta gazteen foroak...

Adierazlea	Estandarra
Talde Lanaren inguruko formazioaren balorazioa	Egitea
Koordinaziorako organoak identifikatu	Egina
Organo Teknikoaren funtzionamendua adostea	Egina maiatzerako
Organo teknikoaren bilerak egitea	12 bilera
Organo teknikoaren balorazioa	Eraginkorra / baliogarria



6.- SAIL BEZALA FUNTZIONATZEKO BEHARREZKOA DEN EGITURA ETA ANTOLAKETA DEFINITU ETA ABIAN JARTZEA

6.2.5. Gazteria eta Aterpetheen arteko harremana indartu

Arduraduna: Atal burua - Gorka Goiatxe

HELBURUA:

Udal gazte aterpetheen zerbitzua 2009. urtean integratu zen udaletxeko egituran, hain zuzen Gazteria Sailean. Hortik aurrera, Gazteriak eta Aterpetxetako zerbitzuak ez dute elkarlan egitasmorik osatu, bakoitzak bere zerbitzuak kudeatu eta bulegoa konpartitu dute, besterik ez.

Asmoa da udal gazte aterpetxetako zerbitzuak eskaini ditzakeen bere bi ekipamenduak Gazteria Sailean egokitzea. Haurtxoko, Gazteleku zein Kontadoreseko ekipamenduekin batera gazte aterpetxeak bestelako Gazteriako ekipamendu gisa onartzea. Horrela Ulian eta Ondarretan ditugun gure bi eraikin horien zerbitzuak eskaini eta Gazterian sortzen diren aisialdi zein elkarlanerako esparru gisa antolatzea.

NOLA GARATUKO DA:

Gaur egun aterpetheen zerbitzuan dagoen erdi mailako teknikaria, Gazteriako berdefinizio prozesuak sortu duen antolaketa ereduan txertatu 7. teknikaria bezala.

Horretarako, lanpostu honek gain dituen mantentze lanen ardura, gazte aterpetxeetako arduradunekin bideratu. Helburua litzateke, gaur egun dagoen teknikaria 2 urtetan jubilatuko dela eta lanpostua uztera doanez, eginkizunak aldatu eta teknikari lanpostu hori Gazterian txertatzea. Horrela gazte aterpetheen kudeaketaren ardura edukiko du atalburuarekin koordinatuta, baina udal aterpetheen inklusioa eta aterpetxeek eskaini ditzaketen zerbitzuen sustapena bultzatuko du gazterian.

Egutegia:

2017-2019 urteetan zehar: Aterpetheen zerbitzuak gazterian eskaini eta programa bat martxan jarri gazteriako teknikariek koordinatuta.

2017aren bukaeran: Aterpetxeek eskaini ditzaketen zerbitzuen zerrenda eta zehaztapenak antolatu.

2018: aterpetheen erabilerarekin Programa bat definitu

2019: Programa hori martxan jarri, gauzatu.

Adierazlea	Estandarra
Gazteria eta Aterpetheen arteko elkarlana adostu	Egina
Eskainiko diren zerbitzuen zehaztapena	Egina
Koordinazio bilerak gazteria eta aterpetheen artean	4
Elkarlanaren balorazioa	Egitea

**6.- SAIL BEZALA FUNTZIONATZEKO BEHARREZKOA DEN EGITURA ETA ANTOLAKETA DEFINITU ETA ABIAN JARTZEA****6.3. Urte bakoitzeko inplementazio planak diseinatu, garatu eta ebaluatu****6.3.1. 2017ko plana diseinatu, jarraitu eta ebaluatu****Arduraduna: Miren Mancisidor****HELBURUA:**

Gazteria Saileko organo teknikoaren funtzio nagusietako bat urtez urtekako planifikazioak diseinatu, jarraitu eta ebaluatzea da, legealdiko erronketan oinarrituta.

NOLA GARATUKO DA:

Gazteriako organo teknikoan landuko da.

Planaren diseinuaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren ardura Gazteria Saileko teknikari batek izango du. Halere, ekintza bakoitzaren arduradunari, ekintza bakoitzaren planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa egitea egokituko zaio.

2017ko plana Gazteria Saileko lehena izanik, planifikazio, jarraipen eta ebaluazio prozedurak zehazten joango gara urte honetan zehar. Prozedura hauen zirriborroak prestatu eta organo teknikoan eztabaidatu, kontrastatu eta adostuko dira.

Organo teknikoaren 3 saio berezi antolatuko dira 2017ko planaren inguruan:

- 2017ko planaren aurkezpena – martxoan
- 2017ko planaren jarraipena – ekaina/uztaila bitartean
- 2017ko planaren ebaluazioa – azaroa/abendua bitartean

Adierazlea	Estandarra
Planaren ebaluazioa	Egitea
Planaren egokitasuna	Eraginkorra

6.- SAIL BEZALA FUNTZIONATZEKO BEHARREZKOA DEN EGITURA ETA ANTOLAKETA DEFINITU ETA ABIAN JARTZEA**6.3. Urte bakoitzeko inplementazio planak diseinatu, garatu eta ebaluatu****6.3.2. Haur, nerabe eta gazteen balorazioak jasotzeko sistema zehaztea 2017/2018 ikasturterako
Arduraduna: Atal burua - Miren Mancisidor**

2015-2016 ikasturtean, Gaztematikatik, Ebaluazioan haur eta nerabeen iritzia jasotzeko tresnak deituriko ekintza garatu zen, horretarako lan-talde bat sortuta. Lan-talde horren barruan Haurtxoko eta Gaztelekuetako ebaluazio prozesuetan haur eta nerabeen iritzia txertatzeko bide eta teknika desberdinak landu ziren.

Ikasturte honetan, berriz, 2 lan-ildo proposatzen dira gaiari jarraipena emateko:

1) Urteko 2 momentutan (abendua eta maiatza) Haurtxoko eta Gazteleku guztiak iritzia jasotzen hastea teknika kuantitatibo berdina erabiliz.

Tresna kuantitatibo berdina erabiliko dute Haurtxoko eta Gazteleku guztietan eta horren erabilgarritasuna eta egokitasuna hausnartuko da.

2) Teknika kualitatiboak eta, zehazkiago, talde-dinamikak martxan jartzeko **esperientzia pilotu** batzuk abian jartzea. Donostiako kasuan, **Bidebietako Gaztelekuan jarri** dugu martxan esperientzia hau.

Esperientzia pilotu hauek martxan jarri dira Foru Aldundiko Bulego Teknikoaren laguntzarekin. Ikasturteko bi momentutan teknika kualitatiboak erabiliz, erabiltzaileen iritzia jasotzea aurreikusten da (abendua eta maiatza ekaina aldera).

Esperientzia pilotu hau aurrera eramateko, lantalde bat osatu da, zeinetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Bulego teknikoko kide bat, nerabeen adin tarteko erreferentziatzko teknikaria, Gaztelekuetako koordinatzailea eta Bidebietako Gaztelekuko erreferentziatzko hezitzailea egongo diren.

Lantaldean egitasmoa diseinatu da eta Bidebietako Gaztelekuan praktikara eraman ondoren, ebaluatu eta ondorioak aterako dira. Horretaz gain, 1go eta 2. dinamika txanden artean, Gipuzkoako hezitzaileak biltzen diren foroan, esperientziaren aurkezpen bat egingo da, Gipuzkoako herri desberdinetan aurrera eramandako esperientziak konpartitzeko momentua izango da.

Jarraituko diren datak honakoak:

2016ko azaroa: Egitasmoaren plangintza orokorra eta oinarrien finkatzea.

2016ko abendua: Nerabeei beraien iritzia eskatzeko 1go dinamikaren diseinua.

2017ko urtarrila: Bidebietako Gaztelekuan, nerabeekin dinamikak aurrera eraman.

2017ko otsaila: Buruturiko talde dinamikaren inguruko informazio jasoketa eta esperientziaren inguruko balorazioa.

2017ko martxoa: Esperientziaren aurkezpen saioa Gaztematikako Nerabeen Hezitzaileen Foroan.

2017ko apirila: Nerabeei beraien iritzia eskatzeko 2. dinamikaren diseinua.

2017ko maiatza: Bidebietako Gaztelekuan, nerabeekin dinamikak aurrera eraman.

2017ko urria: 2016-17 ikasturtean zehar aurrera eramandako esperientzien balorazioa eta 2017-18 ikasturterako plangintza orokorra.



2 lan-ildo horien bidez, ebaluazio-prozesuetan haur eta nerabeen iritzia jasotzeko bide desberdinek eskatzen duten lana, dedikazioa, zailtasuna eta lortzen diren emaitzei buruz hausnarketa bateratu bat egin nahi da Gipuzkoa mailan. Horrela, 2017/2018 ikasturterako haurren eta nerabeen iritzia jasotzeko sistema edota eredu zehaztu eta Haurtxoko eta Gazteleku guztietara zabaltzeko ahal izateko.

Adierazlea	Estandarra
Haurren eta Nerabeen iritzia jasotzeko sistema ezartzea Haurtxoko eta Gazteleku guztietan	17/18 ikasturterako egina



03

2017KO

AURREKONTUA

—



DONOSTIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Programakuntzako, azterlanetako eta aurrekontuetako zuzendaritza
Dirección de programación, estudios y presupuestos

2017ko aurrekontua
Presupuesto 2017

Jarduera / Actividad: GAZTERIA / JUVENTUD
Arduradun Politikoa / Responsable político: Martín Ibañe

Arduradun Teknikoa / Responsable Técnico:
Imanol Tellería

KONTU SAILA PARTIDA	GASTUEN AZALPENA EXPLICACIÓN DE GASTOS	ZENBATEKOA IMPORTE
120.01	Oinarrizko ordainsariak / Retribuciones básicas	142.456,03
121.01	Ordainsari osagarriak / Retribuciones complementarias	206.045,55
160.01	Gizarte-aseguruak / Seguros sociales	90.404,61
160.04	Elkarkidetzaren kuotak / Cuotas Elkarkidetzaren	5.720,82
162.01	Prestakuntza / Formación	436,70
	1. KAPITULUAREN GUZTIZKOA / TOTAL CAPITULO 1	445.063,71
211.01	Eraikinen artapena / Conservación de edificios	7.500,00
212.01	Makineriaren, instalazioen eta tresneriaren artapena Conservación de maquinaria, instalaciones y utillaje	2.000,00
215.01	Ekipamendu informatikoaren artapena / Conservación de equipos informáticos	2.000,00
220.01	Bulegoko materiala / Material de oficina	700,00
220.04	Altzariak eta lanabes ez inbentariagarriak / Mobiliario y enseres no inventariables	1.000,00
221.01	Energia elektrikoa / Energía eléctrica	15.000,00
221.03	Gasa / Gas	2.300,00
221.04	Erregaiak eta karburanteak / Combustibles y carburantes	6.000,00
221.13	Konponketetarako materiala / Material para reparaciones	1.300,00
221.99	Bestelako hornidurak / Otros suministros	1.000,00
222.01	Telefono-komunikazioak / Comunicaciones telefónicas	11.000,00
222.02	Posta bidezko komunikazioak / Comunicaciones postales	100,00
224.99	Beste aseguru primak / Otras primas de seguros	400,00
226.03	Publizitate eta propaganda / Publicidad y propaganda	1.000,00
226.06.02	Gazte elkartrukeak: gazteak eta Europa / intercambios juveniles: Jóvenes y Europa	10.523,69
226.06.03	Haur- eta gazte-aisialdia (denbora libre eta Gabonak) Ocio infantil y juvenil (tiempo libre y Navidad)	49.766,12
226.06.04	Plan joven / Gazte plana	18.000,00
226.06.05	Hedapen kulturala / Difusión cultural	6.500,00
226.06.06	Sustapen kulturala / Promoción cultural	16.635,70
226.06.07	Berdintasun programak / Programas igualdad	20.500,00
226.12	Komunitate-gastuak / Gastos de comunicación	2.000,00
227.01	Garbiketa-lanak / Trabajos de limpieza	73.240,77
227.04	Zerbitzu-enpresak / Empresas de servicios	1.070.000,00



DONOSTIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Programakuntzako, azterlanetako eta aurrekontuetako zuzendaritza
Dirección de programación, estudios y presupuestos

2017ko aurrekontua
Presupuesto 2017

Jarduera / Actividad: GAZTERIA / JUVENTUD
Arduradun Politikoa / Responsable político: Martín Ibabe

Arduradun Teknikoa / Responsable Técnico:
Imanol Tellería

KONTU SAILA PARTIDA	GASTUEN AZALPENA EXPLICACIÓN DE GASTOS	ZENBATEKOA IMPORTE
227.11	Fotokopiagailuaren eta faxaren mantenimendua / Mantenimiento de fotocopiadora y fax	5.200,00
227.13	Instalazioen mantentzea / Mantenimiento de instalaciones	2.500,00
227.15	Web orria eta mantenimendua / Página web y mantenimiento	2.000,00
230.01	Dietak, lokomozioa eta lekualdaketa / Dietas, locomoción y traslados	800,00
	2. KAPITULUAREN GUZTIZKOA / TOTAL CAPÍTULO 2	1.328.966,28
432.01	DK-rekin ikus-entzunezko hitzarmenarako diru-ekarpena Aportación convenios audiovisuales con DK	2.000,00
481.01	Gazte-elkarteak / Asociaciones juveniles	85.300,00
481.02	Haurtxokoak (udal-haurtxoko gabeko auzoetako haur-ekipamenduetarako hitzarmenak) Haurtxokos (convenios con equipamientos infantiles en barrios sin haurtxoko municipal)	64.657,00
481.03	Beste diru-laguntza zuzenak / Otras subvenciones directas	5.523,00
	4. KAPITULUAREN GUZTIZKOA / TOTAL CAPÍTULO 4	157.480,00
622.99.01	Gazte eta haur ekipamenduak / Equipamientos para jóvenes y niños	331.000,00
	6. KAPITULUAREN GUZTIZKOA / TOTAL CAPÍTULO 6	331.000,00
	GUZTIRA/TOTAL	2.262.509,99



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián